



## 27 Kultura: Xabier Legarreta nagusitu zen Xalto Sarian

Xabier Legarreta aranoarra nagusitu zen abenduaren 26an Goizuetan burututako Xalto Sariaren finalean. Nafarroa eta Iparraldeko 24 urtez beheitiko bertsolariei zuzendutako sariaketa honetan Estitxu Fernandez lesakarra izan zen azpitxapeldun.

## 3 Elkarrizketa: Joseba Mendiburu

Zubietako joaldunak laister izanen dituzten inotien berri eman digu.

## 4 Erreportaia: Bera-Behobia errepidea

Lehen aldiz Bortzirietako alkateek Nafarroa eta Gipuzkoako agintariak elkarrekin biltzea lortu zuten afera honetaz solasteko. 2002. urterako bide zati hori moldatu nahi dute.

## 28 Kirolak: Doneztebeko Erreka


Elkarteak nesken bi eskubaloitalde plazaratu ditu denboraldi honetan.

## GEHIGARRI BEREZIA: Sunbillako Ihauteriak

Hilabete honen 23tik 25erako asteburuan izanen dira ihauteriak Sunbillan. Gehigarriazken urteotako argazkiak eta aurtengo egitaraua.

# Abiatu dira aurtengo ihauteriak

*Zenbait herritan ospatua dute dagoeneko, baina gehienetan laister murgilduko dira ihauteri giroan: Ituren, Zubieta, Sunbilla, Leitza... Mozorrotu edo atsoguratu eta ongi pasa!*




# AMAIUR

DONEZTEBEko sarreran ☎ 948.450400



Prezioa  
zuk jarri  
sukaldea  
guk jarriko dizugu



## MAVERICK

4x4

Indartsua, behar  
duzuenean



**ZALAIN MOTOR**

☎ 948.631157 • 908.778023

Ubeialdea - BERA

**TELLETXEA TAILERRAK**

☎ 948.450667

Leizako bidea - DONEZTEBE

## DATUAK.....

❖ Gaur egun 23 urte ditu Josebak, eta 6 edo 7 urterekin hasi zen joareak astintzen, etxez-etxe txikien taldearekin puskak biltzera joaten zirelarik.

❖ Haundien taldera, ordea, 14-15 urte zituela pasa zen, eta duela bi urtetik honat mozorrotzeko ere probexten ditu inotik.

❖ Berak dioenez inotietan nahi haina astokeria egiteko libre dira mozorroak, baina halere batzuk pasatu egiten direla aitortzen du, urtetik urtera zikinkeria eta astokeria haundiagoak egiten baitira.

❖ Hilabete honen hondar astean ospatuko dituzte inotik Zubieta eta Iturenen.

👉 **Joseba MENDIBURU** Zubietako joalduna

## “Gero eta astakeria eta zikinkeria gehiago egiten dute mozorroek”

### **NONDIK HELDU ZAIZU JOALDUN IZATE HORI?**

Nere kasua espezioa dela esaten ahal da, etxe guzietan familikoren bat dutelako lehendik joareak jotzen zituena, baina gure aita Doneztebekoa da eta atautxik ere ez zituena jotzen.

### **BALDINTZAREN BAT BEHAR DA NAGUSIEN TALDEAN SARTZEKO?**

Fisikoki prestatua egon ezker eta ongi jotzen baldin badakizu, bertzerik ez da behar. Ni 14-15 urtetan hasi nintzen, 8. maila akituta. Gazteetan (antolaketa taldea) sartzeko, berriz, zortzikoa, vals eta jota bat dantzatu behar dira denen aurrean.

### **EMAKUMEEK ERE BERTIN?**

Bai, joaldunetan hasia denentzat libre da. Zubietan badira bizpahiru neska ateratzen direnak, nere arreba hoiaren artean, eta orain ez dago horren gaizki ikusia, nahiz eta joalduna neska bada jendea gehiago fijaszen den ongi jotzen duen edo ez.

### **HOR BARN A JOTZERA ERE MAIZ ATERA BEHAR IZATEN DUZUE, EZTA?**

Bai, eta joaldunak pixkot aspertzen hasiak gara. Zenbat ordaintzen duten, bazkaria ematen duten eta holako gauzak begiratzen hasi gara orain, eta leku batzuetara ez gara joaten. Dei-



«Joaldunak pixkot aspertzen hasiak gara hor barna ateratzearekin».

tu ere gutxiago egiten digute, talde berriak hasi dira nonbait, Tuterakoak eta Iruñeakoak... eta guk baino diru gutxiago eskatzen dute.

### **JOAREKIN IBILTZEAZ MOZORROTU ERE EGITEN OMEN ZARA.**

Bai, hori gozada bat da. Beti mozorrotzeko txirrintarekin egoten nintzen, eta duela bi urte mozorrotu nintzen le-

henbiziko aldiz, eta jo!, ze ongi pasatzen den! Jendea transformatu egiten da, inork ez zaitu ezagutzen eta nahi dituzun astakeriak egiteko libre zara; zure burua lurrera bota, zikindu... Batzuk pasatu egiten dira halere, urtetik urtera gero eta astakeria haundiagoak eta zikinkeria gehiago egiten baita. Hasi ziren pixa botatzen, eta gero kaka, eta gero... iaz behi ustel bat ekarri zuten, kristoren usaiarekin. Aurten dagoeneko bakarren baten prestatua izanen du

zerbait ere.

### **BERTZALDE, BADIRA OHITURA BERRI BATZUK, EZTA?**

Bai, lau urtetik honat herriko besten bezperako arratsean joaldunetz jauntzi eta herrian buelta bat ematen da eskuan zuziak hartuta, lehendik zuritutako arbolak altxatzen den egunean bertan.

Horretaz aparte bestetan edo inotietan joareak bizkarrean eta galtzontzilotan atera ohi gara, baina astetartean edo jende gutxi dagoenean bakarrik.

📌 *“Zubietan badira bizpahiru neska joareekin ateratzen direnak, nere arreba horien artean, eta orain ez dago horren gaizki ikusia.”*



Argazkia: Karmele

Bortzrietako alkateek Nafarroa eta Gipuzkoako agintariak elkarrekin biltzea lortu dute hondarrerako.

# 2002. urterako moldatu nahi dute Bera-Behobia errepedea

**Belateko tunelak idekita oraindik larriagoa bihurtu da Beratik Behobiaraino doaien errepedearen egoera. Behingoan moldatze obrak abiatu daitezzen Bortzrietako alkateak aspalditik ari ziren Gipuzkoa eta Nafarroako diputazioei presioa egiten eta joan den urteko abenduan, azkenik, lortu zuten bi aldeetako ordezkariak mahai berean esertzea.**

**B**eratik Behobiarainoko bidezatzia moldatze aldera lehen kontaktuak joan den urteko abenduan abiatu ziren Jose Ignacio Palacios

eta Jose Julian Irizar, Nafarroa eta Gipuzkoako Diputazioetako agintarien artean, aspaldidanik Bortzrietako alkateen nahia zen bezala. Azken hauen kezka eta bi herrialdeetako ordezkarien egitasmoak agertu ziren Lesakako Udaletxeko mahaigainerat eta aferari buruzko zenbait erabaki ere hartu ziren.

Bortzrietako alkateak itxaropentsu agertu dira bileraren ondotik, eta «lehenbizikoko pausu bezala positiboa» izan dela uste du Manuel Iriarte beratarrak. «Gu konforme gaude biak mahai berean elkar-

tu direlako bederen, orain arte gu enbajadore moduan ibili baikinen» adierazi digu. Hemendik aitzinera ere bide berean segitzeko asmoa duela dio, «errepede zati hori arront arriskutsua delako, 3. mundukoa, eta ez da inondik inora eskualdeak behar duen irteera duina».

**Beratik Enderlatsaraino bai...**

Bidezati horren konponketa proiektua egiteko konpromezua Nafarroako Gobernuak hartu du bere gain, eta Palacios kontseilariak adierazi zuenez hemendik bi urtera obrak hasteko moduan izanen dira. Bi urtez luzatuko dira lan horiek, eta beraz, 2002. urterako moldatua ikusiko omen dugu errepedea.

**Bainan Enderlatsatik Behobiarat...**

Bigarren zati honetan sortzen da, ordea, arazoa. Bi herrial-

deetako agintariek onartu dute behar-beharrezkoa dela lehenbailehen Gipuzkoako sarrera hori moldatzea, baina jakina denez, errepede zati horren jabetza Nafarroarena da XIX. mendeaz geroztik, diru kopuru handia ordaindu baitzuen harengatik, eta horrek bi administrazioen arteko nahastea sortu du orain.

Gipuzkoko Foru Aldundia moldaketa lanak finantziatzeko prest agertu dira errepedearen titularitatea berreskuratzearen truke, baina Nafarroako Gobernuak ez du hori onartzen.

Lesakako bilkura horretan lehentasuna eman zitzaion, halere, errepedea moldatzeko obrak abiatzeari, «jabetza eskuratzea ez da nahitaezko baldintza, eta segurnago akordioen batera ailegatuko gara» adierazi zuen Gipuzkoako Herri Lanetako diputatu

forala den Jose Julian Irizarrek. Obra egiteko proiektua, azkenean, tekniko independente baten esku uztea erabaki zuten bi aldeek.

### Apirilean bertze bilera bat

Apiril aldera, hortaz, bilkura berri bat burutuko dute zonaldeko alkate eta administrazioetako buruek, orduan bai, proiektu berriaren gainean nolabaiteko akordio erabakiorra izenpetzeko. Ordurako, gainera, in-

gurugiro alternatibei buruzko ikerketa bateratua egiteko konprometua hartu dute bi herrialdeetako teknikoek, eta dagoeneko horretan ari dira lanean.

Belateko tunelen idekitzearekin, jakina denez, oraindik biziagoa bihurtu da kotxe eta kamioien trafikoa Bera eta Behobia arteko bide horretan, eta gogora ekarri beharrezan gaude egunero 7.000 ibilgailu inguruk egiten zuela ibilbide hori lehenago. ■



Apirilerako bilkura berri bat burutzeko hitza eman zuten Gipuzkoa eta Nafarroako agintariek, eta ordurako tekniko independente batek Endarlatsatik Behobiarainoko bidez egindako proiektua eztabaidatu ahal izanen dute. Bidezati horretan sortzen da, izan ere, bi administrazioen arteko nahastea, errepidearen jabetza Nafarroarena bada ere, gipuzkoarrek ez baitute begi onez ikusten beren lurraldean obretan hastea.

Argazkiak: Karmele

## Jose Luis Etxegarai: "Arazo nagusia Endarlatsatik Behobiarako zatian dago"

✓Abenduaren 27an Jose Ignacio Palacios Nafarroako Gobernu Kontseilaria, Gipuzkoako Diputazioko Jose Julian Irizar eta Bortzirietako alkateek izandako bilera hartatik, zer azpimarratuko zenuke?

□Neretzako garrantzitsuenen bi aldeek obra hau oso beharrezkoa dela onartzea izan da. Horregatik nik esperantza badut errepide hau egiten dutela. Uste dut akordio batera ailegatuko direla, bakoitzak zenbait gauzatan amore emanez.

✓Proposamen konkreturik egin al zuten?

□Bera-Endarlatsa zatian Nafarroako administrazioak hartzen ditu obrak bere gain, baina handik Behobiara arazoa sortzen da, errepidearen jabetza Lesakarena baita eta lurraldea, berriz, gipuzkoarena. Haiek erraten dute 150-250 milioi pta kilometro bakoitzeko aski dela zati hori moldatzeko, bidezatiaren %60an 3 karril paratuz, denetara 1.000 edo 1.500 milioi pezeta inguru.

Nafarroak, berriz, dena 3 karrilekoa egin nahi du eta azken kilometroa -Behobiako rotondaraino- 4 karrilekoa. Hauen ustez, San Migueleko kurba sahiestuko lukeen zubia eta guzi, 3.600 milioitan aterako litzateke obra. Obra osoa 6.000 milioi inguru pezeta gostako da.

✓Zer konprometuz hartu du alde bakoitzak?

□Endarlatsatik Behobiarako zatien proiektua tekniko bati enkargatu zaio apirilerako, eta orduan bilera berri bat egiten dugu,



trazatu berria eztabaidatu eta ahal bada akordio erabakiorrak hartzeko.

Bi administrazioetako teknikoen artean, bertalde, ingurugiro alternatibei buruzko ikerketa egiten dute, eta bitarte horretan hitzarmen bat negoziatuko dute Gipuzkoa eta Nafarroak.

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Olentzero, Aita Noel eta Erregeen opariak

#### Galdetu baino opari gehiago ukan dut



Sebastien BORDA  
Saratarra, 8 urte.

Etxean izai tiki bat apaindu dugu eguberrietarako, eta Belen bat ere

ezarri dugu etxean. Nik Aita Noel ospatzen dut, eta opariak uzteko bota bat ezarria nuen ongi garbiturik. Aita Noelentzat baso bat xokoletaesne eta bixkotxa batzuk utziak genituen bainan ez du gauza haundirik jan iduriz...

Galdetu baino opari gehiago ukan dut, ordenagailua, hiru trikota, kiroleko jauntziak eta oinetakoak, bideo kazetak, "Sega" jokia, auto telegidatua, "Buldozer" bat, jostetako zizpak, goxokiak eta sosa. Lagunen jostailuak ere ikusi ditut, eta denen artean gehien maite dudana "traktopala" da, horrelako tresnak maite ditudalako.

Maialen nere arreba, Xabi eta Kattia kusinekin jostatu naiz eguberrietan, maiz etxean berean egoten gara eta. Denbora ederra delarik, ordea, kanpoan ibiltzen gara. Sarako amatxi Maialen eta aitaxi Marzelengana joan naiz eguberrietako oporretan, eta Pantxo eta Kristin osaba-izebekin ere egon naiz. Senpereko aitaxi eta amatxiren etxerat ere joan naiz oparien bila.

#### Gehien maite dudan oparia "Spice girls"en bideoa da



Jone BENGOTXEA  
Urdozubiarra, 9 urte.

Nik olentzero eta erregeetan jasotzen ditut opariak, bietan. Aurten

olentzerok 3 kasetu utzi dizkit, bata eguberrietako kantuekin, eta bertze biak ipuin desberdinekin. Erregeek, berriz, paisola, jertsea, motxila bat, zapatilak, eta bi bideo, "Spice girls"-ena eta "101 dalmatak"-ena.

Nahiz eta urte osoan beti ongi portatzen naizen, nikesperobaino opari gehiago ekarri didate, hauetako batzuk nik eskatuak ziren, baina bertzeak sorpresa izan dira. Gehien maite dudana "Spice girls"-en bideoa da. Nik egindako zerrendatik gauza batetz bakarrik atzendu dira.

Hala ere, denbora gutti izan dut erregeak pasa eta gero jostatzeke, eskolak segituan hasten direlako. Nere ustez opor aste bat gehiago beharko genuen izan jostetan aritzeko.

Eguberrietako oporrak kusina Maiterekin jostetan eman ditut.

#### Josteta da garrantzitsua, eta ez jostailua



Iker IGOA  
Hezitzailea. Bera

Eguberriak pasa berri dira eta Olentzero, Aita Noel eta Erregeek

etxeak jostailuz betekituztuzten: Ahalik eta etsai gehien hiltzeko bideojolasa? Negar, hitz, kaka, pixa... egiten duen panpina?... Guzti hauekin gozatu eta ongi pasatuko dute haurrek. Baina ez hori bakarrik.

Josteta eta jostailuaren bitartez haurra hezitzen da, jostailu bakoitzak balore batzuk bultzatzen dituelako. Telebistan agertzen direnak, ordea, ez dira balorerik egokienak: sexuen arteko ezberdintasun ikaragarria (meskak etxean seme-alabak zaintzen eta mutilak suhiltzaile, kamiolari edo polizi), biolentzia, luxua (Barbie), agintea eta boterea...

Haurrak, jostatzen ari den bitartean, jostailuak bultzatzen dituen baloreak bere egiten ditu. Lehenengo urteetan umeak bere gorputza eta ingurunea ezagutzen du jostailuen bitartez, eta geroago gizartearen arauak bereganatzen ditu, jolasen bitartez helduen mundua irudikatzen du, lagunekin harremanatzeko balio dio, psikomotritzitatea lantzen du...

Hala ere josteta da garrantzitsua, eta ez jostailua.

**Zuzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juanas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogorza. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...

**Inprimategia:** Graficas Ona. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.

**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarre...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9etatik 13tara eta 16etatik 20tara  
• Ortzegun eta ortziraletan, 6etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxe: 133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## IRAKURLEAK MINTZO

**Kaixo!**

Barka euskaraz ez idazteagatik. Uruguaiarra naiz eta hemen gaztelaraz bakarrik solasten dugu eta Ingelesa eta Frantzea apenas eza-gutzen ditugu. Baina erran didate zuen aldizkaria Nafarroako iparraldeari dagokion guztiaz arduratzen dela. Horrela bada, eta ikusi ahal izanen duzue, Baztan-ieskeinitako orrialde bat daukat Interneten, eta hango kultura, jendea eta erakargarritasunak zabaltzen saiatzen naiz. Helbidea utziko dizuet:

<http://www.geocities.com/heartland/Plains/1531/>  
MARTIN OSPITALETCHÉ

**Kaixo!**

Dalmiro Cruz Seoane dut izena, Alemanian bizi naiz eta "Euskaldunen gatazka"ri buruzko lan bat egin beharra daukat. Informazioen bat bidali diezadakezue? Eskerrik asko.

Helbidea:  
Dalmiro.Cruz-  
Seoane@allgaeu.org  
DALMIRO CRUZ SEOANE

**Jaun agurgarriak:**

Nere izena Esteban Fabian Gamietea da eta argentinarra naiz. Zuen Web orrian ikusi dut Teofilo Gamietea Gubia izena. E-mail bidez berekin harremanetan jarzea gustatuko litzaidake. Zuek nolabait ere abisatu ahal izanen bazenute nere betirako esker ona izanen zenuteke. Goraintziak Argentinatik.

E-mail:  
gamiete@movi.com.ar  
ESTEBAN FABIAN GAMIETEA

**EAri (eta azkena)**

Hamaika hitz, hamaika iritzi.

Sortu den egoera eta idatzi diren guztiak oso larriak iruditu arren, eztabaida modu honetan ezin daiteke jarraitu, ene ustez. Honekin ez dut esan nahi eztabaida utzi be-

har denik, eta hobe gehiago sakonduko bagenu. Beraz, eta horregatik eskaintza luzatzen dizuet berriro ere, nahi duzuenean (ahal den azkarren hobe) herriko Karrape

irratitik, zuek eta guk esandako, eginiko eta ez eginiko guztiaz hitz egiteko, dena argudiatzeko eta jendaurrean argitzeke asmoz, Beraz, huts eginen ez du-

zuelakoan, Aio!...

MIKEL ILLARREGI ELBERDIN  
LEITZAKO ALKATEA



## Nekazari eta abeltzainek behar duten guztia Kutxa honetan dago



**P.A.C. 98**  
Ayudas Compensatorias Comunitarias

**Aholkularitza, Tramitazioa,  
Esperientzia...  
eta ohituta zauden  
arreta.**

**AURRERA ZAITEZ, ZURE  
BULEGORA JOAN ETA  
TRAMITAZIORAKO EGUNA GORDE**



NAFARROAKO  
**RURAL KUTXA**  
CAJA RURAL DE NAVARRA

 Jon ABRIL Beratarra

## Kulturaren golak



Imajina ezazue futbol talde berri bat sortzen dugula gure herrian. Entrenamenduetarako

baloi bat beharko dugu lehenik. Hori erosteko hogeidurona jarrita entrenatzen hasteko prest egonen gara. Ligan parte hartzeko izena ematea deliberatuko dugu aitzinago. Hor, aldiz, arazokak handiagotu egingo zaizkigu. Jantziteri osoa ezinbertzekoa izanen dugu.

Hasierako hogeiduroak zenbait mila pezeta bihurtuko zaizkigu. Hala ere, nola edo hala lortuko ditugu sosa horiek (bakoi-tzak gure aportazioa jarritz, boletoa salduz, txosna jarriko du-

gu herriko bestetan, udalari dirulaguntza eskatuko diegu...). Ondotik federazio-ko fitxak, arbitroak... etorriko dira. Horiek ordaintzeko lan gehiago egin beharko dugu, eta diru nahikorik ez badugu hiru puntuak lortu ordez, hutsean utziko dugu sailkapeneko puntuazioa.

Antzeko egoeran gabilta kultur taldeak (gehientsuenak bederen). Batzuek jantzia erostea lortu dugu; bertze batzuek federazioko fitxak ordaindu ditugu; arbitroak ordaintzeko gutxiagori iristen zaie; eta futbol zelaia... futbol zelaia nork du? Inork ez (edo ia inork ez). Kultur taldeek ez dugu non bildu entrenatzeko, eta ezta partiduak jokatzeko ere. Futbolariak ez bezala, zorionez, jokorako tresnak etxean gorde ditzakegu (bal-

dintza txarretan, etxeko armaruak betez, non ditugun eta nork dituen ongi jakin gabe... baina gordetzen ahal ditugu). Non bildu ez dugulako bederatzi jokalariz zelairatu behar izaten dugu, edo etxean gelditu, punturik erdietsi gabe, sailkapeneko azken postura kondenatutak.

Herrian dauden bertze futbol taldeekin indarrak batu ezker, gure taldearen nortasuna mantenduz, gure helburuak baztertu gabe, partiduak berdintzea lortuko genuke beharbada, baita noiz-

**Kultur taldeek ere golak sartu behar ditugu; buruz, penaltiz, eskuadratik edo hankapetik, markagailura igoko diren golak.**

behinka irabaztea ere. Zergatik ez.

Denon artean urte guztirako plangintza osa genezake, zela berean eta ordu berean bi partidu antolatu gabe. Beharbada UEFA n sartzea lortuko genuke. Orduan herritarrak gure gibeletik genituzke, seguru!

Kultur taldeek ere golak sartu behar ditugu; buruz, penaltiz, eskuadratik edo hankapetik, markagailura igoko diren golak. Elkartzeko gune bat behar dugu, gure materiala gordetzeko leku egokia, liga antolatzeko azpiegitura eduki... Sakabana-tuta gauden jokalariek elkartuta futbol zelaia propioa eduki dezakegu, partidu amaierarako dutxak ur bero eta guzti... Presta gaitezten elkarrekin garaipenaren gola kantatzeko: GOOOOOOOOOLA!!

 Maddi Bediaga Euskal Herriko Bahá'í Erkidegoko kidea

## Arrazakeria eta xenofobia



Gaztetxo nintzela arrazakeriaz aditzen nuen aldiro pertsonai beldurgarriak etortzen zitzaizkidan

burura, tunika txuriz jantziak, buruan kukurutxo txurriak eta eskuetan zuziak ziztuztenak beltzen etxeak erretzeko asmoz, pelikuletako ku-kux-klan-etakoak, alegia.

Urteak pasa ondoren abentura nahiak beste herrialdeak ezagutzera bultzatu ninduen. Atzerrian nengoela aurkikuntza bat

egin nuen, hau da, niretzat guztiz normalak ziren hainbat jokabide han ez zirela hain normalak, areago, batzuetan gustu txarrekoak edo gaizki hezitakoak zerrizoten. Honen adibide simple bat jartzearen, Euskal Herrian bertan, hegoaldekoen hitzegiteko ozentasunari iparraldekoek gehiegizkoa deritzote. Honelako gauzak, noski, kulturalak dira, eta bada-kigu diferentziak izan arren ez dela horregatik arazorik izan behar.

Arazoa hasten da, nik uste, pentsatzen dugunean gure erak besteenak baino hobekak direla, hots, gure buruak besteenak baino gehiago direla eta eskubidea badugu la gu bezalakoak ez direnei (arrazaz, pentsaeraz, sexuz, erlijioz...) gaizki, edo, behintzat, *gurei* bezala ez begiratzeko. Noski, hementik ku-kux-klan-eraino maila asko daude, bakoitzak

hausnar dezala bere burua non dagoen.

Honen sendabiderik onena, ene iritiz, atzerrian denboraldi batez egotea da, ahal bada denboraldia luzea izan dadila, besteengandik ikasteko astia hartuta, zeren munduko egoera dagoen bezala ohitu beharko dugu, gero eta gehiago, beste Herrietako jendearekin bizitzen. Beraz, hobe zurrak izan eta diferentziak aprobetxatu ditza-gun gizarte hobe bat erakitzea, irikiago, alegia, Bahá'u'lláh-ren aholkua buruan hartuta: «Eutsi iezaiozue tinko gizateria osoaren

**Atzerrian nengoela aurkikuntza bat egin nuen, hau da, niretzat guztiz normalak ziren hainbat jokabide han ez zirela hain normalak, areago, batzuetan gustu txarrekoak edo gaizki hezitakoak zerrizoten. Honen adibide simple bat jartzearen, Euskal Herrian bertan, hegoaldekoen hitzegiteko ozentasunari iparraldekoek gehiegizkoa deritzote.**

lasaitasuna eta ongizatea ekarriko duenari. Lur zati hau Herri bakar bat da, gela bakar bat. Handikeria utz ezazue alde batera urrutzea ekartzen baitu, bihotza jar ezazue armonia ekarriko duen gauza guztietan... gizokiaren handitasuna ez bait dator bere hiritartasunetik edo mailatik; bere ezagutza, jokabide zuzena, izaera laudagarria, eta jakintzatik baizik».

Azken finean ez baitakigu bihar ez ote garen gu arrotzak izango.



## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias, 97ko abenduaren 14a

«Gaztetan bidaxka guziak buruz nekizkien. Ni ez ninduten inoiz ere harrapatu eta ez nuen egundaino kargarik galdu».

«Aldaketak aldaketa, beti izanen da ekarri beharreko gauzak eta ekarriko dituen jendea».

Jose MARITORENA eta Carlos GONZALEZ  
Beratarrak, kontrabandista-ohiak  
Diario de Noticias 97-XII-14

«Pianoa etxeko korridorean zegoen, eta baloiari ostikadak eman ondoren, askotan pianoan esertzen nintzen».

Javier PEREZ de AZPEITIA  
Beratarra. Piano jolea  
Egunkaria 97-XII-2

## ◆ Zer ekarri dik olentzerok?

◆ Ikatza, noski.

## ◆ Eta zer eskatu hioken hik?

◆ Pentsatua nuen zako haundi horretan preso eta errefuxiatu guztiak beren etxeetara banatuko zituela, baina ez zen lan erraza izanen, ezta?

## ◆ Zer erranahi ditek eguberriek hiretzako?

◆ Komertzioa, eliza eta monarkia. Gure aurkaririk haundienak.

## ◆ Sutondoan egoteaz aparte, zer egiten duk gustora neguan?

◆ Udak bezala, gauza onak baditu neguak. Udan freskotasuna bilatzen da, eta neguan berotasuna. Horregatik udan neguaz oroitzen gara, eta alderantziz.

## ◆ Zer eginen duk zahartzen haizenean?

◆ Indarra baldin badut gaztetan bezala bizi, bestenez zerbaitetan saltseatu. Baina seguraski hilko naiz denak bezala.

## ◆ Zer falta zaiek oraingo gazteei?

◆ Betiko kontuan gabiltza. Falta duten gauza helduen konprensioa da, helduentzat gaztea haurra delako beti, eta hori ez da horrela.

## ◆ Zein duk Berako jendearen ezaugarri nagusia?

◆ Sobera begiratzen zaio besteak zer esango duenari, eta horrela egin gabe gelditzen dira gauzak.

## ◆ Nongo bestetan ez duk inoiz hutsik egiten?

◆ Bera eta Lesakakoetan.

## ◆ Eta nora ez haiz egundaino joan?

◆ Oiartzungo bestetara, Berakoekin batera baitire.

## ◆ Zer etortzen zaik burura "osasuna zaindu behar da" aditzen dukenean?

◆ Arrazoia dutela, baina segidan pasatzen zait.

## ◆ Zerk edo nork ematen dik beldurra?

◆ Kapitalismoak, eta diruak duen podereak. Mertzzenariak bihurtzen gaitu.



Txomin IANTZI

BERA



**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40  
BERA



**FORESNA  
ZURGAIA**

Nafarroako Baso Elkarte

Nafar Gobernuak 1998ko mendi-landaketa-  
karako ematen duen dirulaguntza es-  
katzeko 151501 telefonora deitzen ahal  
duzu, edo ondoko udaletxeetara agertu:

- ELIZONDOKO UDALA ..... Urtarrilak 15
- ZUBIETAKO UDALA ..... Urtarrilak 16
- GOIZUETAKO UDALA ..... Urtarrilak 19  
Urtarrilak 20
- LEITZAKO UDALA ..... Urtarrilak 23
- BERAKO UDALA ..... Urtarrilak 26
- LESAKAKO UDALA ..... Otsailak 2

Goizeko 9etatik eguerdiko 12ak arte

Aurkeztu behar diren paperak:  
-Eskrituraren fotokopia.  
-Banko edo Kutxaren zenbakia.  
-Pianoa.

*Xingil*  
ileapaindegia

☎ 631462 • Altzate I • BERA

**ETXANDI  
TXOKO  
erretegia**

Bazkari, afari  
eta gosariak

**ITUREN**  
Tfnoa: 45 04 91

## Leitzako Sarriopapelek 6.000 milioi inbertituko ditu 2000. urtea bitartean

Produkzioaren hazkuntzak 50 lanpostu berri sortuko omen ditu 2002. urterako

TTIPI-TTAPA

Leitzako industria-munduaren ardatz nagusia den paper-fabrikak 6.000 milioi Pta.ko inbertsioa burutuko du 1999ko abenduaren 31a baino lehen, gaur egungo produkzioa gehitzeko asmotan. Horixe dio enpresako zuzendaritzak Nafarroako Gobernuarekin adostu berri duen akordioak.

Joan den urteko udan paper iztukatuaren produkzioa alde batera utzi zuen Sarriok eta burubelarrari hasi zen balio erantsi gehiagoko paperarekin lanean. Horren ondorioz aurre-jubilazioa eman zitzaizen fabrikako hainbat langileri, eta lehengo 500 lagunetik 450 ari dira gaur egun lanean. 2002. urterako, ordea, eta produkzioaren hazkuntza dela medio, 550eraino haziko omen da langilegoa, zuzendaritzako kideek aurrikusi eta jakinarazi dutenaren arabera.

Bestalde, arestian aipatu dugun hitzarmen horretan agerienez, enpresak 5.976,4 milioi-



Gaur egun 450 langile ari badira ere, Sarriopapeleko zuzendaritzak aurrikusitakoaren arabera beste ehun arituko dira 2.002 urtean D.Noticias

ko inbertsioa egiteko erantzunkizuna hartu du bere gain, Nafarroako Gobernuak zenbait laguntza bideratzearen truke.

### INBERTSIO UGARI

Inbertsioen artean, aipagarria da produkzio-kosteak murriztuko dituen 6 megawatteko indar-sorgailu berria eraikitzeko 680 milioi Pta. erabiliko direla, eta beste 150 milioi 3.500 m<sup>2</sup>ko gordailua egiteko.

Gainerako inbertsioei dagokienean, paper-metalizatuaren arlora 1.800 milioi Pta. zuzenduko dira eta eraikuntza honetan aire libre isurtzen diren hondakin-gasak erretzeko makina bat izanen da, gainera.

Beste arloetan ere milioi askotako inbertsioak egingen dira, paper-termikoan, Eurokal-koan edota dizdira haundiko paperetan, besteak beste.

**LANA**

### Urteko besta egunak

Errege Egunarekin batera, apirilaren 9a, abenduaren 3a, abenduaren 8a, abenduaren 20a eta abenduaren 27a izanen dira aurtengo besta egunak Nafarroa osoan. Hauekin batera, herri bakoitzeko zaindariaren eguna ere besta izanen da.

## Bainu etxeen programan parte hartzeko epea zabalik

Urtero bezalatsu, bainu etxe edo balnearioen programan parte hartzeko aukera zabaldu dute Nafarroako Gizarte Zerbitzuetan, bakoitzarentzat propio pentsatutako sendabide egoika eman asmoz.

Aurten Zestoa, Arnedillo, Seron eta Fitero-ra joaten ahal dira programan parte hartzen dutenak, urtarrilaren 26a baino lehen izena ematen badute. Programa 65 urtez goitikoentzat, erretiroko pentsioa edo baliazintasun absolutoa dutenentzat, alargun pentsiodunentzat (60 urteak beteak izanik) eta senar-emazte edo horrelako lotura dutenentzat zuzenduta dago. Eritasun kutsagarririk ez izatea, bainu etxetako bizimodu normala aztoratzeko moduko buru-nahaste larririk ez izatea, norbera bere kabuz baliatzeke gauza izatea eta tratamendu termala behar izatea dira interesatuek bete beharreko baldintzak.

Informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko norberaren Oinarriko Gizarte Zerbitzura joan behar da.

**Errekalde ostatua**

Ortizraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

**SAROBE**  
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**Dia** %  
Autozerbitzua  
deskontua

**Hamabostero**  
ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6  
63 14 03 • BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu!  
Gu arduratuko gara horretaz.  
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

**BERA**  
DESINFECCIONES

63 01 55  
BERA

**GRUPO ZURICH**

**ASEGURO OROKORRAK**  
Itzea, 4 - BERA - 63 07 63

# Etxebizitza babestuak eraikiko dituzte Agerra auzoan

Obrak martxo aldera hasiko omen dira

ASIER GOGORZA

Interes handia piztu du Agerra auzoan egitekoa den etxe multzo berriak, eta jende frankoeskaerak egin nahian ari da dagoeneko. Proiektuan ageri denez, 3 solairuko etxeak eraikiko dira, 48 etxebizitza guztira, garai batean rugbi zelaia izanduen tokian. Hala ere, apuntatzeko epea oraindik ez dute ideki, proiektua oraindik onartzeko baitago.

Behin obra baimena ematen dutenean, ordea, lanak hasteko moduan izanen dira Promociones OCEC.SA enpresakoak, eta beharbada orduan zabalduko da izena emateko epea. Hori martxo alderako izanen dela aitzindu digu Manuel Iriarte Bera-ko alkateak.

Dena den, lasai egoteko deia luzatu du alkateak, ordurako bareremo batzuk jendaurrean agertuko omen direlako, etxebizitza hoiek erosteko lehentasunak finkatuz. Horrela, behar gorriena duten familiek izanen dute aukera gehien etxe hoietan bizitzen jartzeko. Interesatuek baremo hoiek ikusteko modua izanen dute gainera, Herriko Etxean paratuko baitira.



## Kultur Etxean aste osoko gose greba burutu dute

Eguberrietako astean, abenduaren 27tik urtarrilaren 3ra bitartean, baraualdia egin zuten Bortzirietako hainbat lagunek Euskal Presoekin elkartzasunean. Beratik 5 lagun animatu ziren protesta ekintza honetara, Paxkual, Kotto, Ander, Eneritz eta Ainhoa, eta batatz bertzte 5 kilo galdu zuten baikoitzak.

Arg.: Asier

## Morau eta Joxi Ubeda abeslariak, bihar arratsean Bidaxka ostatuan

Hiru kontzertu antolatatu ditu Bidaxka ostatuak urtarrilerako. Joan den asteburuan Purr donostiarrak aritu ziren bezala, bihar bertan Morau eta Joxi Ubeda izanen dira kan-

tari, arratseko 10etatik aitzinerat. Hilbeltzaren azken egunean, berriz, Live in the Attic-eko ak aditu ahal izanen ditugu, Hondarribiko bertzte talde batekin batera.

Kontzertuetaz gain, ordea, arte erakusketa ttiki bat antolatu dute datorren astebururako, urtarrilak 23, 24 eta 25erako. Bertan bi artisten lanak izanen dira ikusgai, Berako Maddi eta Txabi azkoitiarrarenak, hain xuxen ere.

## flash

### Dantzak

Urteroko izen-ematearen berri eman du Gure Txokoa dantza taldeak. Urtarrilaren 20 eta 27an egin beharko da Eztegar pilotalekuan, eguerdiko 12tatik 1etara. Apuntatzeko baldintza bakarra 5 urte beteak izatea da. Deialdia lehendik ari zirenei nahiz lehen aldia dutenei luzatu zaie.

### Eguberrietako

Futbito Torneoan Rantanplan taldeak irabazi zuen berriz ere, Baietz taldeari penaltietan irabazi ondoren, eta hirugarren Deabru Txoruak sailkatu ziren. Denetara 7 taldek jokatu zuten txapelketa hau, eta 5 lehenentzako sariak partitu ziren: trofeoa, platera, eguberrietako saskia, bazkaria eta 25.000 pta, eraman zituen irabazleak.

### Labiaga

ikastolako 240 ikasle ikatza eraman zitoten Markotegi kontseilariari, olentzeroren partez, eta baita eguberrietako ohiko kantak abestu ere, Hezkuntza Departamentuaren aitzinean egindako protestan.

  
**KIROLAK ZELA**  
Altzate 6, ☎ 63 05 98  
**BERA**

**OKANE**  
**HARATEGIA • URDAITEGIA**  
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

  
**ZALAIN**  
JATETXEA  
EGUNEKO MENUA ETA KARTA  
Zalain Auzoa  
☎ 63 11 06  
**BERA**  
**Boda eta banketeak ematen dira**

  
**Bortzirietan**  
**107.2**  
**FM**  
Tel.: 581226  
Faxa: 452453

# Enpresa-mindegia sortuko da aurten Alkaiagako industrialdean

Enpresari berriei lokala utzi eta aholkularitza emanen zaie

AITOR AROZENA

Alkaiagako industrialdean enpresa-mindegi bat sortzeko elkarlanerako hitzarmena sinatu du Herriko Etxeak Navarra de Suelo Industrial, S.A (NASUINSA) enpresarekin.

Proiektu honetarako 24 milioi pezetako dirulaguntza hitz emana dago, Nafarroako Gobernua eta Europako elkarteak babestutako Resider II programatik. Aurrekontua ere 24 milioi pezeta ingurukoa izanen da eta urte bukaerarako zabalik egoeta espero da.

Udalak Alkaiagako industrialdean duen 3.000 m<sup>2</sup>ko lur-eremu batean nabe bat eraikitzeko asmoa dago proiektu honetan. Nabean, lanean hasi nahi duten enpresa ttikiei lokala utziko zaie eta aholkularitza eta informazioa emanen zaie, ANEL eta CEIN bezalako erakundeen bitartez. Jose Luis Etxegarai alkateak errandakoaren arabera «lanean hasteko dirua eta lekua izaten da arazorik haundiena. Horregatik errenta ttiki batekin edo debalde zenbait kasutan, lokala utziko zaie bizpahiru urterako». Gero,



## Pierola eta Txoperena irabazle pala txapelketan

Pierola eta Txoperenak osatutako bikotea suertatu da irabazle Batzoki elkarteak lehen aldiz antolatutako Paleta Goma txapelketa irekian, final go-gor batean 35-32 irabazi baitzieten Lakosta eta Larralderi. Hirugarren posturako norgehiagokan Hita eta Telletxeak 35-32 irabazi zieten Xebe eta Patxi Txoperena anaiei. Partiduak bukatuta sariak banatu ziren eta afaria izan zuten partehartzaileek. Antolatzailuek adierazitakoaren arabera, txapelketaren balorazio hagitz ona egin dute eta datorren urtean bigarren edizioa antolatzeko asmoarekin daude.

Argazkia: LEGARRA

negozioa ongi badoaie lokal berri bat erosi beharko lukete eta mindegiko lokala enpresa berriei utzi. «Azken finean hegan ikasi bitarteko kabia uzten diegu» alkatearen arabera. Lokala eta aholkularitza gain, ikastaroetan parte hartzeko aukera eta zerbitzu amankomunak (telefonoa, faxa, idazkaria...) izanen dute interesatuek. Herrikoak ez direnak ere lepora eskatzen ahal dute.

## Beti Gaztek antolatutako argazki lehiaketaren sariak gipuzkoarrentzat

Hondarribiako Txaro Polo eta Jose M. Marruedok aurkeztutako «Matricula BI-4-71» argazkiak irabazi du Beti Gazte elkarteak, Herriko Etxearen eta zenbait erakunderen laguntzaz zarpigarren urtez antolatutako argazki lehiaketaren sari nagusia, horrenbertez 20.000 pezeta eta oroigarria eskuratuz. Bigarren saria

(15.000 pta eta oroigarria) Bergarako Jose A. Gurrutxagaren «Dantzan II» izeneko argazkiak lortu zuen. Kirol argazki onenari emandako saria (15.000 pta eta oroigarria), Rufo donostiarrak sinatutako «Amanecer» lanak hartu zuen. Guztira, 35 argazkilariren 107 lan aurkeztu dira aurtengo edizioan.

## flash

### Udal kirol instalazioak

erabiltzeagatik prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza ahobatez onartu du udalbatzarrak. Honela, frontoian orduko 500 pezeta ordaindu beharko da eta futbol zelaian, orduko 3.000 pezeta. Kopuru honetan aldagelak eta dutxak erabiltzea sartua dago, baina argia erabiliz gero, ordaindu egin beharko da. Kompetizio kirola edo kulturekitaldiak egiten direnean ez da ordaindu beharrik izanen. Igerilekuen kasuan, denboraldi osorako 4.000 pezeta ordaindu beharko dute 18 urtez goitikoek; 2.200 pta 11 eta 18 urte bitartekoek eta 1.500 pta 4 eta 10 urte artekoek.

### San Anton Eguna

ospatuko da larunbat honetan. Endara auzoko ermita eta inguruak bisitatzera hainbat lagun hurbilduko dira egun horretan eta igandean, eguna erromeri giroan pasatzea.

### Autoa erreta

Errege bezperako gauean J.L. lesakarraren autoa erre zuten ezezagun batzuk, kristala harri batekin xehetu ondotik. Autoaren jabeak erantzaina bezala lan egiten du Gipuzkoan.

**Lurrindenda**  
Marian  
endiberrri  
Estetika  
Behoko Plaza 8 • 637791 • LESAKA

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera 630735 • IRUN (943) 622305

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
627573 • LESAKA

**ANA**  
Janaridenda  
Bittiria, 41 • 63 79 44  
LESAKA

ETXALAR

# Baserri izenak paratzeko proiektua aitzinera doa

Bortzirietako baserrietan egitea espero da

PELLO APEZETXEA

Aspaldixko pentsatu eta solasten hasia da, Bortzirietako Euskara Batzordeetan eta Euskara Mankomunitatean, baserrien izenak bidegurutze eta bidebakterretan paratzea. Izenak ongi idazteko eta zaintzeko, alde batetik, baina medikuak eta ambulantiak etortzen direnean, nora jo ez dakitela ez ibiltzeko, behin baino gehiagotan gertatu den bezala. Eta turistak landa-etxeetara etortzen direnerako ere bai, galdezka eta sarritan ibiltzen baitira. Gauza bera, noski, gauzak ekartzera eta, kanpotik etortzen diren hainbat jenderentzat. Oraingoan iduri du proiektua mugituko ote den, laguntzak ere kanpotik espero baitira. Ikusi beharko Udalak ere eskua luzatzen duen



## Olentzero aurten asto eta guzi

Joan berri den urte horretan Olentzero etorri zaigu, urtero bezala, ez, ordea, beti bezala. Aurten, arraultza prexitiuak beretzat bazituen, bai, baina baita ingurukoentzat ere zerbait; ondotik bertze Olentzeroa baitzuen, hau oinezkoa, eta goxokiz kargatutako astoz lagundua.

Argazkia: PELLO

eta, behar bada, baserriarren borondatea.

## Ermitan hasi dira, berriz ere, lanean

1996ko udazkenean Santa Krutz Ermitaren kanpoaldea berritu zen, harri landuak garbitu,

zartadura berritu eta ingurua saneatu. Orain barrangoari ekin diote, hor ere harri landua garbitze eta zartadura berritzeari lehenbizi. Zura pintatzea eta bertze lan batzuk izanen dira hurrengoak.

## Abenduko kultur ekitaldi saila ongi joan da

Aspaldiko urteetan ez da egin, seguraski, joan den abenduan hainbertze kultur ekitaldi. Bera, Sara, Azkaine eta Senpererekin batera antolatutako 'Herriak eta Hiriak' izeneko Kultur Hilabetea dela eta, solasaldiak, txiste afariak, bertso saioa, musika, etabar luze eta interesgarria gauzatu da.

## flash

### Jaiotzak eta heriotzak

1997. urtean lau herritar berri jaio zaizkigu, eta lauri eman diogu lurra. Aspaldian izan dugun kopuru tikiena, hilda-koena.

### Presoen alde

Bertze herrietan bezala, eta Beran talde batek baraualdia egin zuen egunetan, jende multzo bat bildu da egunero plazan. Arrazoia? Presoek ere eskubide batzuk badituztela gogoratzea, legez errespetatu behar direnak, Euskal Herri-arakartzea, batez ere.

### Plantazio batzuk

berritu beharrean daude. Zentiñel mendian sartutako bago landare gehienak ihartu dira. Haizeak kalte handia egin die eta berriz ere bago landareak paratuko dira, baina tikiak, eta zerrakuraz zainduak.

« **USOA** »  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14  
**ETXALAR**

**ETXALARKO HERRIKO OSTATUA**  
Urtarrilaren 19tik otsailaren 12ra itxita izanen dugu.  
Barkatu molestiak.  
635290 • **ETXALAR**

**LEGARRA**  
Legarra, 9 • 63 70 30 • **LESAKA**  
**IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU**  
• Liburuak  
• Papertegia  
• Tabakoa  
• Plastifikazioak egiten ditugu  
• FAX publikoa  
• Enkuadernatzeak  
• Inprenta lanak

**TALLERES**  
**FRAIN**  
Juantxo Pikabea Zozaia  
Autoen mekanika,  
eletrizidada eta karrozeria  
Otsango ind., 16  
31770 **LESAKA** ☎ 948-637525

**IGANTZI**

# Urte berriarekin batera hasiak dira frontoia estaltzeko lanak

Zoragarria gelditzen ari da Piedadeko baseliza azken moldaketekin

OSKAR TXOPERENA

Frontoia estaltzeko lanak Errege Egun biharramonean hasiko zirela agindua zegoen eta baita xuxen hasi ere. Orain arte lehen zegoena xehetzen aritu dira eta, egia erran, Igantziko mende honetako historia zati haundi bat hauts bihurtzen ikusteak pena pixka bat eman izanen dio bati baino gehiagori. Zer egunak bizi izan ditugun frontoi horren inguruan, Igantzin pilotak orain baino indar haundiagoa zuen. Beti ere!



## Eguberriak ospatu bidenabarkoan, Piedadeko baseliza moldatzeko astia izan dute zenbaitzuk

Oporretan egon garen tarte honetan bizitzak bere martxa segitu du herrian. Eguberrietan ez dute Olentzero eta Erregeek huts egin. Eta argazkian ageri denez, horiexek izan ditugu karriz karrika. Bertze batzuk lanerako astia ere hartu dute eta isil-isilik, poliki-poliki, Piedadeko ermitari orain duen itxura ederra eman diote.

Argazkiak: OSKAR

### Erausianek antolatutako kontzertu arrakastatsua

Erausian Gazte Euskara Taldeak antolatuta rock kontzertua eskeini zuen urtarrilaren 4ean «Lorelei» tal-

deak. Azken momentuan prestatutako ekitaldia izan bazen ere, jende dexente bildu eta giroa ere polita izan omen zen Biltoki elkartearen. Lanean gogotik ari dira gazteak!

### Felix Txoperenari omenaldia

Dagoeneko urruti xamar gelditu zaigu, baina, abenduaren 20an Felix M<sup>a</sup> Txoperenari egindako omenaldiaz bi solas erran gabe ez ga-

ra geldituko. Bertako jendeak erantzun bikaina eman zuen eta, kanpotik etorritako parte-hartzaileak ere hagituz gustora joan omen ziren bertako giroa ikusita. Ondotik 140 lagun

bildu ziren afaltzera Baratzondoko lokalean eta bertan hartu zituen Felixek abesbatzek emandako zenbait opari. Aunitz urtez segi dezala oraingo lana betetzen!

**CONDUMILLIONES MECANICAS**  
**BERRIZUN S.L.**  
 Makinaria eraikuntza  
 Moldaketak eta despiezea  
 Mantenimendu mekanikoa  
 Torno, fresadorak, errektifikadorak  
 Igantziko Bentak • © 627572 • Faxes: 637313

**Aranguren**  
 Aroztegi mekanikoa

Tel.-Fax: (948) 63 72 58  
 Tel.mug.: 908 -77 51 85  
 Otsango industrialdea  
 31770 LESAKA

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

**MARTIKO**  
 Gure baserrietako produktuak

© (948) 63 07 00 • Fax 63 12 13  
 Zalain Poligonoa, BERA

**ARANTZA**

# Eguberrietako ospakizunak Errege Eguneko bazkari eta apostuarekin akautu ziren

Abenduaren 27ko gauean baserriz baserri ibili ziren gazteak santaktan

ELIXABET ETA GARBIÑE

Errege Egunean frontoian egin zen apos- tu ikusgarriarekin eta Aterpen garai bateko mendi-mutilen bazka- riarekin akautu dira Eguberriak.

Gabon egunean, he- rriko haur eta gaztetxo- ak beraien olentzeroe- kin atera ziren. Bihar- ramonean, olentzero gu- ztiak plazan bildu eta erre zituzten.

Larunbatean, aben- duaren 27an, gazteak bi- taldetan Santaktan es- kean ibili ziren baserriz baserri (batzuk Eguzki- alde eta Bortalarre au- zoetan eta bertzeak, Aientsa eta Azpilarrean) gau osoan. Gero, goi- zaldean denak batera el- kartu eta herrian barna ibili ziren. Aterpeko ha- meketako goxoaren on- dotik etxeratu ziren gehienak.



Olentzeroekin ibili ondotik biharamonean erre egin zituzten

## Mozorroen lehen bilera

Pasa den astean egin zen Primi ostatuan mo- zorroen lehendabiziko bilera. Otsaila hasieran ospatuko dira aurtengo iñauteak eta mozorro bezala atera nahi duten guztiak hemendik ai- tzinera eginen diren bi- leretara agertu beharko dute.

## Ander Agesta txapelkun ETB-DV txapelketan

Ander Agesta herri- ko pilotaria ETB-DV txapelketan txapelkun suertatu da jubenil mail- an. Iker Iriarte, Burla- tako atzelariarekin bi- kote eginez 22-17 ira- bazi zieten Errioxako Gabarri eta Zurdo de Bañosi. Donezteben abenduaren 28an joko- tutako finalean. Ander gustora dago txapel ga- rrantzitsu honekin.

## Hiru herritarrek parte hartu dute presoak Euskal Herrira ekartzearen aldeko gose greban

Euskal presoak Euskal Herrira lema- pean Bortzirietako Herri Ekimenak anto- latutako gose greban hiru herritar izan geni- tuen: Imanol Iturria,

Mikel Karrera eta Martin Legarra. Berako Kultur Etxean gosea pa- satuz igaro zuten Eguberrietako aste sei- nalatua, inguru hone- tako bertze hameka la-

gunekin batera. Gose greban zeudela eta, Urtezaharegunean pla- zan enkartelada egin zen eta ortzirean so- lasaldia eman zuten Herriko Etxean.

**XATURETXEA**  
  
**JATETXEA**  
 Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

**IKUSMENAREN BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

**GIHARRE ARAZOAK**

- Bixkortzea
- Artritria, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
 Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

**MAGNETISTA NATUROPATA**

☎ (943) 62 30 55  
 San Marcial, 7-4 IRUN

**ONDORIOETATIK INDARTZEKO**

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

**EROSLE**  
**LESAKA**

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereana

**Frexkuena zugandik hurbilago**

Bittiria, 67 - ☎ 637264

**GOYA**

JOSTAILUAK  
 JANTZIAK  
 OPARIAK  
 ERREMINTAK

Altzate, 5 • ☎ 63 00 83 BERA

**IRU BIDE**  
 ERRETEGIA

Tfnoa: 637127  
 LESAKA

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**DONEZTEBEN**

**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak

Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
 Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

**EKAITZA kafetegia**

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

**SUNBILLA**



**Kabalgata arrakastatsua suertatu da**

Erregeek ere Sunbilla bisitatu zuten. Hurbildu ziren haur guztiek muxuen truke opariak hartu zituzten eta erregalirik preziatuenak hurrengo goizean, beren etxeetan jasoko zituztelakoan gaude. Iaz, Jaiotza edo Belena eta Erregeak frontoian ikusi ahal izan bagenituen ere, aurtan Eliza atarian ospatu da guztia.

**Eguberriak pasatuta ihauterien zain**

Aurten ere kabalgata arrakastatsua izan da

JAIONE ETA ALBA

Joan dira dagoeneko Eguberriak. Olentzeroarekin hasi genituen eta herriko jendearen partehartzea eskergarria izan da, diru mordoxka bildu baita. Irabaziak, Antzakaitz kultur taldearen esku daude, eta urtean zehar kultur ekintzan antolatzen era-

biliko dituzte. Abenduaren 25ean, berriz, ohi-tura den bezala, hoguei bat gazte eskean atera ziren, Eguberrietako kantak abestuz eta herria alaituz. Gauean baserrian barna ibili ziren eta hurrengo egunean bazkari eder batekin bukatu zuten.

Urtezahar gaua Ulibeltzak elkartean, Mo-

desto akordeolariak alaitu zuen eta goizaldera arte luzatu zen festa. Hurrengo egunean gaztetxoek etxe etxe urte berriari abestuz ibili ziren.

**Ihauteriak gainean**

Eguberrietako kontuak alde batera utziz, ihauteriak gainean ditugu. Hilbeltzaren 23,



24 eta 25ean izanen dira eta dagoeneko karrozak egiten ari diren mugimendua nabarmena da. Ortziralean emakumeen afaria egiten da, urtero bezala,

sorpresaz beteta. Larunbat gauean mar-txa izanen da herriko os-tatuetan eta egun berezienean, igandean, kar-rozen desfileaz gozatu ahal izanen dugu.

**ttipi-ttapa**

6.500 harpidedun  
24.000 irakurle

**Merkealdiak**



Parrokia 11  
Tfnoa: 45 01 12  
DONEZTEBE

**GAZTANDEGIA**

**LIZUN** Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 45 08 62 • SUNBILLA



**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133  
451 541  
Faxa: 450 334  
DONEZTEBE

**ARIN ASEGURUAK**

Parrokia 21  
Tel.-Fax: 450266  
DONEZTEBE

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkiak
- Bertzeak



**☞ DONEZTEBE**

# Osasun Zentro eta Maisuen Etxeen artean etxebizitzak egin gogo dira

Lur eremua Nafarroako Gobernuarena da, ordea

TXEMA ALDABE

Osasun Zentro eta Maisuen Etxeen artean Babes Ofizialeko Etxebizitzak egin gogo dira. Etxebizitzek, beheko solairuaz gain hiruko altuera izanen lukete, baina horretarako 1.020 m<sup>2</sup> lur-eremuaren desafekzioa egin behar da, Hezkuntza eta Kultura Sailaren esku baitago. Udalaren erabaki honen alde zinegotzi guziak azaldu ziren, Zabala ezik. Honen ustez, gerora begira herriak behar dituen zerbitzuetarako erabili behar harko litzateke eremu hau. Alkateak berriz, eremu honen salmenta iazko aurrekontuan sartua zegoela eta salmentaren helburua Babes Ofizialeko Etxebizitzak egitea dela erantzun zion.

## Ezadostasunak Bianako Printzea eta Udalaren artean

Doneztebeko hirigunean egin nahi diren etxebizitzak direla eta ezadostasunak sortu dira Bianako Printzea era-



## Erreka mendi taldekoak Perdido mendian

Erreka Mendi Taldekoak Perdido mendian izan ziren abenduan. Hamar lagun izan ziren eta denek gailurra zanpatzea lortu zuten. Dena den, hemen inguruan hamabortzero mendi ateraldiak egiten segitzen dute. Hilbeltzaren 4ean San Donatora abiatu ziren, baina eguraldia lagun ez zutela ikusiz, Belateko ibilbidea egin zuten. Hurrengo ateraldia igande honetan, hilbeltzak 18, izanen da.

kundea eta Udalaren artean. Bianako Printzeko Ondasun Arkitektoniko sailak herri erdian egin nahi diren etxeei buruzko plana aurkeztu zion Udalari. Udala honen kontra azaldu da, Arau Subsidiarioak beraztertean Udalak hartutako irizpidearekin bat ez datorrelako.

## Merkatari karrikako bi etxe botako dira

Merkatari karrikan, 11. eta 13. zenbakian dauden Martizenea eta Juankonea etxeak bota egingen dira hiru hilabete epe barrenean. Horixe onartu zuen Udalak abenduaren 11n izandako bilkuran, etxe hauen egoera 'ruina to-

tal' edo erabateko aurrigoeraren deklaratu ondoren.

## Euskal Kantuzaleen elkarteari...

100.000 pezetako dirulaguntza ematea onartu du Udalak, Euskal Kantu txapelketako finala Donezteben egiteagatik.

## ▼ flash

- ❖ **Administrari laguntzaile**  
izateko lanpostu lehiaketarako 40 lagun onartuak izan dira eta 7 baztertuak. Aukeraketa egiteko azterketak hilabete honetan egingen dira. Erran behar da lanpostu hau Udalak atera duela eta fijoia izanen dela.
- ❖ **'Euskaraz nahi dugu hitz eta jolas' leloean**  
Malerrekako IKAK matrikula epea zabalik du hilbeltzaren 30a arte, euskarazko klaseetara etorri nahi duten guziendako. Informazio gehiago 451555 telefonoan.
- ❖ **Babestutako etxebizitzan**  
mantenimendu eta gastuendako Doneztebe Udalari iaz 774.600 ptako kuota zegokion.
- ❖ **Azkarreta etxe sotoa**  
moldatzeko langileak hartu ditu udalak INEMen laguntzaz. Hauek dira kontratatutakoak: Pio Jaurena, Miguel Angel Perez, Jose M<sup>a</sup> Olazar, Jose M<sup>a</sup> Anzizar eta Poti Rekarte. Lan hauek, zuzenbidean iaz akituak egon behar zuten.

**IBARROLA**  
**HAURRENDAKO ARROPA**  
**MERTZERIA**  
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

**SANTAMARIA**  
**Jatetxea**  
Especialitatea euskal sukaldaritzan  
**Eguneko menua eta karta**  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

zapata & osogorriak  
**Arandano**  
**merkealdia**  
• Paredes • Liberto  
• Braco • Kickers  
Merkatarien karrika, 21 • DONEZTEBE  
☎ 948 46 18 01

**EVATZA**  
**STABERNA**  
Gosariak • Bokatak • Pintxoak  
**DONEZTEBE**  
(Osasun Zentroaren parean)  
☎ 451766

**MALERREKA**

# Gizarte-laguntza lanak egin nahi ditu Arkupeak elkarteak

Horretarako kideen borondatezko lana bultzatuko dute

TTIPI-TTAPA

Gizarte-laguntza lanak egiteko, kideen arteko borondatezko lana «bete-bete» bultzatuko du Arkupeak erretiratuen elkarteak, abenduaren 18an ospatu zuen asanbladan adierazi zenez. Plan honetarako 1,3 milioi Pta. erabiliko ditu Arkupeak elkarteak. Sozioen kuoten erdia herriz herri hedatu nahi den ekimen honetarako erabiliko da.

Baina ez zen hori erretiratuek aitzinera begira azaldu zuten asmo bakarra. Ezinduak eta eri daudenak laguntzeaz gain, adintuak zaintzeko Eskualdeko Egoitza baten ametsa dute elkarteok. Felipe Ganboa lehendakariaren erranetan, «eguna egoitza horretan igaro ondotik, gauean etxera itzuliko lirateke. Honela, adinekoak ongi zainduta daudela jakinda,



Adintuak zaintzeko eskualderako zentro bat egitea nahi luke Arkupeak elkarteak, «eguna bertan pasatu eta gauean etxera itzultzeko, honela gazteei errextasunak eman eta familia-lotura galdu gabetenikan» Artxiboa

gazteek lanera joateko arazorik ez dute izanen eta, aldi berean, familia-lotura mantenduko da».

Madrilen izandako Erretiratu Batzarrean, alargun, umezurtz, lan-

gile autonomo eta etxe-koandreen alde Arkupeak elkarteak aurkeztutako ponentziaren berri ere eman zen.

Arkupeak elkarteko besta egun horretan 14 autobus ibili ziren ha-

rat-honatean. Lehenik Belatera joan ziren bide zaharretik, gero, tuneletatik itzuliz. Elizondon izan zuten meza eta batzarra eta, azkenik, Bordatxon mila lagun bildu ziren bazkarian.

# Zaborrak bildu eta tratatzeko tasa berriak onartu dira

Establezimendu eta bilketa kopuruaren arabera ordainduko da

TXEMA ALDABE

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateak egindako azken bilkuran onetsi zituen zaborrak eta hiri-hondakin solidoak tratatzeko tasa berriak. Tasa berri hauek ezberdinak dira establezimendu eta bilketa kopuruaren arabere-

ra, ondoren aipatzen den bezala:

- 1.- Etxebizitza eta baserriak, zaborontzitik 200 metro baino hurbilago: 3 bilketa: 6.999 pta. 2 bilketa: 10.750 pta.
- 2.- Dendak: 3 bilketa: 13.998 pta. 2 bilketa: 10.750 pta.
- 3.- Autozerbitzuak: 3

- bilketa: 21.015 pta. 2 bilketa: 14.841 pta.
- 4.- Ostatuak: 3 bilketa: 13.998 pta. 2 bilketa: 10.750 pta.
- 5.- Diskotekak: 3 bilketa: 21.015 pta. 2 bilketa: 14.841 pta.
- 6.- Jatetxeak (hamar mahai edo guttiago): 3 bilketa: 13.998 pta. 2 bilketa: 10.750 pta.

- 7.- Ostatu-etxeak (hamar ohatze baino gehiago): 3 bilketa: 13.998 pta. 2 bilketa: 10.750 pta.
- 8.- Taberna-jatetxea (5 mahai bitartekoa): 3 bilketa: 13.998 pta. 2 bilketa: 10.750 pta.
- 9.- Kanpinak: 3 bilketa: 21.015 pta. 2 bilketa: 14.841 pta.

flash



**Bertziko Partzuergo Turistikoan gerente lana**

Nora Eneterreaga, 23 urteko lesakarrak berteke du. Urte erdi bazez proban egonen da eta gero kontratua berritzeko aukera izanen du. Nafarroako Unibertsitatean Ekonomian lizentziatua da gazte lesakar hau.

**Oihan enkantea Eratsunen**

Eratsungo Herriko Etxeak Zumarrezta-tuberia inguruan oihan-aprobetxamendua egiteko enkantea luzatu du. Denetara, 2.306'550 m<sup>3</sup> emanen dituen 3.218 pinu aprobetxatzeko moduan daude eta hasierako prezioa 15.832.159 pezetakoa da. Proposamenak Herriko Etxean aurkezteko epea urtarrilaren 17ko eguerdian akituko da.

**Doneztebeko Babes Ofizialeko**

hamasei etxebizitzatik hamar erosteko 6'9 milioi pezetako dirulaguntza jaso du 'Promociones Ezpelura, S.L.' enpresak. Modu honetan, gehienez %5eko interesa duen mailegua izanen dute sei eroslek eta %7koa gainerako lauek.

Urtarrilaren  
23tik  
25era

**A**ste bakarria falta dute sunbildarrek urte berri honetako iñauterietan murgiltzeko, eta karrozak apaintzen edo jauntziak prestatzen burubelarri ariko dira honezkero. Bertze urtetako zenbait irudi bildu ditugu gehigarri honetan.



Jendeari irri egin arazteko edozein pertsonai famatu ekartzeko gai dira sunbildarrak, eta hori argi utzi zuten joan den urteko ināuterietan, Isabel Gemio aurkezlearen eskutik "Sorpresa, sorpresa" saioa inprobisatu baitzuten.

Programako gonbidatu berezia Juan Antonio Ibarra zen, horrenbertze denboran bere 3 semeak ikusi gabeko emakumea, eta Isabelek (Jose Apeztegia) miraria egiteko esperoan zegoena.

Famatu gehiago ere izan zen iaz Sunbillako frontoian, Pavarotti (Zubito) eta Jesulin de Ubrique (Benttaberri), aipagarrienak.



Umeek ere badute tokia Sunbillako ināuterietan, eta begira bertzenaz zein dotore jauntzita agertu ziren Unai, Egoitz, Amets, Xabi eta Izaskun joan den urtean. Hala ere, umeak bezala ibiltzen direnak goiko argazkiko bikingoak dira. 1996an Sunbilla konkistatzera etorri ziren barbaroak Xibola, Pako, Istamo, Juanito eta Florentino ditugu. Erran behar da ez zitzaizela debalde ateri, katapultea eta gaztelu erraldoi hoiek egiten 48.000 duro gastatu baitzituzten.





Argazkian ikus daitekeen bezala, Sunbillan badago ongi pasatzeko aukerarik: diskotekak (Bordatxo), xooa (zakurrak, zerriak, mandoa), eta ijito koadrila izugarriak (Estamoa, Aulo, Istola, eta Epetxeneko familiak).



lazko inauterietan inkubadora eta guzi atera zen sunbildar koadrila xeblebre hau. Ez dakigu umeek (Kanaxio, Joxejabier, Juanluis, Pipi eta Juan Miguel Urroz) osasuntsu bukatu ote zuten eguna, seguraski ez.

## EGITARAUA

✓ **ORTZIRALA 23**  
**Goizeko 9etan:** Gosaria Itturburu ostatuan. Gosaldu ondotik inauterietan parte hartzen dutenak baserriz baseri ibiliko dira puxkak biltzen. **Arratsaldean,** herriko haurrak mozzoratu egingen dira eta ondoren Ulibeltzak elkartean txokolatada eta musika izanen dute. **Ilunabarrean,** Herriko Etxeko arkupetan dantzaldia. **Dantzaldia bukatu eta** emakumeen afaria Ulibeltzak elkartean eta inauterietako partaideen artean afaria Bustitz ostatuan. Ulibeltzak elkartean dantzaldia akordeoilariekin.

✓ **LARUNBATA 24**  
**Goizeko 9tan:** Gosaria Iruribieta ostatuan. **Ondoren,** herriko karriketant barna eskean ibiliko dira. **Eguerdiko 2tan,** Bazkaria Fondan. **Arratsaldeko 7etan,** Arkupetan, Maskara-dantza. **Afalondoan,** dantzaldia Herriko Ostatuan bertan, akordeoiaren laguntzaz.

✓ **IGANDEA 25**  
**Goizeko 9etan:** Gosaria Bustitz Ostatuan. **11,30etan,** karrozen desfilea ohiko ibilbidean barna. Txaranga. **Ondoren,** Fondaren parean sorpresetako probak eta zerri eta bildotsen zozketa. **2,30etan,** Ulibeltzak elkartean bazkaria. **Ondoren,** elkartean bertan, dantzaldia aspertu artio.

# GAZTELUMENDI eraikuntzak

SAN JUAN KARRIKA • GURE BORDA  
**SUNBILLA**  
 TFNOA: 45 16 70

- Eraikuntzak orokorrean: publikoak, partikularrak
- Etxe berritzeak
- Nabe industrialak
- Saneamendua



NAFARROAKO  
**RURAL KUTXA**  
 CAJA RURAL DE NAVARRA

Lekueder z/g  
 ☎ 45 03 58  
**SUNBILLA**



Aspergarriak direla ezik bertze edozein gauza erran daiteke inauteriei buruz, karrozetaz gain koadrilen arteko jokoak antolatu baitira urtero. Duela hiru urteko argazki honetan, Aitor, Luzio eta Alfredok osatutako taldeak Daniel, Ondartxe eta bertze Aitorren taldearen aurka lehiatu ziren, Juan Antonio juezaaren begiradapean. Goiko irudian berriz, Mario Conde gonbidatu zutenekoa ageri da, bainan gartzelara itzultzea nahiago izan zuen.

## MARISOL JANARIDENDA

Karrika Nagusia, 7 - Tfnoa: 45 06 08 - SUNBILLA

**AINHOA  
ETA  
JOSUNE**

*Trikitilari  
eskola*

Lekueder, 5  
Tfnoa: 45 15 96  
SUNBILLA

## MAIA HERRIKO OSTATUA

Karrika Nagusia ☎ 45 00 48 • SUNBILLA

**IRIBARREN**

FONDA  
eta  
HARATEGIA

Donibane karrika  
Tfnoa: 45 01 80  
SUNBILLA

**SANZBERRO**

**eraikuntzak**

Donibane karrika  
Tfnoa: 45 00 95  
SUNBILLA

**ESPELOSIN  
ERAIKUNTZAK**

Auloa Baserria  
Tfnoa: 45 07 73  
**SUNBILLA**



Ijitoen burua (Jesus Mari Jorajuria) marmitakoko zuzendariarekin (Pako) batera umore onean ikusten ditugu hemen gainean. Ongi bazkaldu zutenaren seinale. Eskuinaldean; iaz grabatutako pelikularen eskena bat, oraindik zinetan noiz estrenatuko zain gaude.



## IRURIBIETA

### OSTATU - JATETXEA

Irun-Iruña bidea, 61,5. Kma

Leku Eder, 4 - 1.D



☎ 45 15 96

Mobila:  
939-723673

**SUNBILLA**

## VIDAL IBARRA

### ELEKTRIKARIA

*Instalazio elektrikoak*

Karrika Nagusia, 9

☎ 45 00 48

**SUNBILLA**

## ITTUR BURU

**OSTATUA**

- Pintxoak
  - Bokatak
  - Plater
- Konbinatuak*

Karrika Nagusia, 23

☎ 45 17 03

**SUNBILLA**

# BUSTITZ OSTATUA

Lekueder - ☎ 45 05 04 - SUNBILLA

# «Bizpahiru koadrilek egiten dute karroza espektakularra»

**A**ditua genuen Sunbillako inauteriak arras espektakularrak izan ohi direla,

bainan oraindik kosta egiten zaigu argazkikoa bezalako karrozak egiten dituztela sineste.

Jakin nahi duenari eranen diogu Iberiaren prototipo berri hau Julio Iglesiasek erabili zuela duela bi urte, Miamitik Sunbillara espreski bidaiatzeko. 11 metroko luzera zuen abioitzarrak, eta hura egiteko 12 lagunek hilabete osoa eman zuten lanean jo ta fuego. Merezitako saria, hala ere, Sunbillako karriketan bildu zen jende sailaren eskutik etorri zitzaizen, ikusle hoiek biziki eskertzen baitituzte horrelako karrozak.



«Urtero bizpahiru koadrilek egiten dute karroza espektakularra, baina hoietaz aparte bertze itiki-

agoak ere izaten dira ikusgai».

**Karrozen prezioa**  
Horrelaxe mintzatu

zaigu Florentino Gelbentzu, Sunbillako inauterietako koordinatzailea. Karroza hoiek egiteko dirua nondik ateratzen duten galdetuta «gure saketik paratzen dugu, eta diru aumitz da hori, abioia egiteko adibidez, 120.000 pta gastatu zituzten koadrila horretakoek» erantzun digu. Gainontzeko

gastuetarako –musika, ikusleen artean dohainik partitzen diren salda, tortilak eta bertze-ordea, udaletxeak laguntzen du diruz, eta aldeberean bildots eta zerri baten zozketa egiten dute dirua ateratzeko. Zozketa horrek arrakasta handia izan ohi du jendearen artean, 500.000 pezetatik

**ARRUTI  
BOTIKA**



Karrika Nagusia  
☎ 45 00 48 •  
**SUNBILLA**

**Gaztandegia**  
Etxeko Ardi Gazta

**LIZUN**

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
**SUNBILLA**

*LINDA* estetizista

Karrika Nagusia ☎ 45 00 48 •  
**SUNBILLA**

- ✕ Depilazio hotza eta beroa
- ✕ Aurpegi garbitzeak
- ✕ Erlajatzeko masaia
- ✕ Esku eta oinetako azazkalak
- ✕ Makilaia. Kosmetikoen salmenta

**GANI**  
**NAFARROAKO**  
**AURREZKI KUTXA**

Karrika Nagusia, z/g - ☎ 45 00 48  
**SUNBILLA**



goiti biltzen baitute urtero.

### 83az geroztik

Baina diru kontuak alde batera utzirik, entzun dezagun zer erraten duten sunbildarrek euren herriko iñauterien historiari buruz: «83an hasi ginen karroza haundiak egiten» erran digu Florentinok, «ordurarte salda eta edaria partitzen duten karrozak ateratzen ziren, baina bertzerik ez. Urte hartan Aita Sainduari buruzkoa egin genuen, eta geroztik ohitura hori segitu dugu gaur arte, urtero gai diferenteak ukituz».

Karroza guziek bata bertzearen gibeletik herrian barna desfilea egiten dute iñauterietako azken egunean, eta eguerdian frontoian espektakulu sorpresa antolatzen dute koadrila batekoek. Ekitaldi horrek arrakasta handia izaten du beti, baina aurtengoan ordea, frontoian obrak direla eta, Fondaren paretan burutu beharko da antzezpina, eguraldiak laguntzen badu bederen.

### Erreleboa eskaka

Zernahi gisaz ere, 16 urte hauetan antola-



kuntzan aritu direnek beren nekea agertu digute, nahiz eta gustora ibiltzen diren antolaketan. «Gazteei erreleboa eskaka ari gatzaizkie, bainan momentuz koadrila berberak hartzen dugu lan gehiena gure bizkar» dio Florentinok. «Salda egin, bildotsak eta zeria aukeratu,

tortilak prestatu, xingarra erre eta bertze gauza tikiak egiteak uste baino lan gehiago ematen du, eta ez da behar bezala apreziazten» gaineratu du.

Datorren igande goizean Sunbillara hurbilduko direnek, hala ere, eskertuko dute salda beroa eta tortila pintxo bat edo

bertze gosari bezala, ez da horrelako aukerarik maiz izaten eta.

Florentino Gelbentzu koordinatzailearekin izandako solasaldian iñauterietako bertze kontu aunitz atera ziren ma-haigainera, baina batez ere karrozen ingurukoak izan genituen solasbide.

Horrela, iñauteriak hasi baino puska lehena goaia aukeratu eta karrozak eraikitzeko koadrila-koideren baten etxean juntatzen direla jakin dugu, eta iñauteriak pasa orduko karrozak sutan erre egiten dituztela ere bai, Valentziako fallen gisara.

# Maria Jesus

## HARATEGIA

Karrika Nagusia, 11

Tfnoa: 45 05 30

**SUNBILLA**

## Juan Luis Apeztegia



## Garraioak

Leku Eder, 2 - 1.C • ☎ 450778 **SUNBILLA**

Mobila: 939-723673

ILEARPAINDEGIA

# "ARTAZI"



Ongi pasa  
iñauterietan

Gindal ibiltokia, 3

1.D

Tfnoa: 45 08 44

31791

**SUNBILLA**


# KONTXA GASOLINDEGIA

**SUNBILLA eta DONEZTEBE artean**

© 45 02 72 / 45 07 87

Faxa: 45 08 10

SUNBILLAKO  
UDALA



*Ongi pasa iñauterietan!*



**ULIBELTZAK  
ELKARTEA**

Leku Eder, 1  
SUNBILLA

**MALERREKA**

# Ituren eta Zubietako iñauteriak, hilbeltzaren 24tik 28ra izanen dira

Aurtiz, Ituren eta Zubietako joaldunak harat-honatean ibiliko dira

IBAN ISASI

Iñauteriak hilbeltzaren 24tik 28ra ospatuko dira eta dagoeneko Ituren, Zubietako eta Aurtizen iñauteri usaina nabari da. Hilbeltzaren 31n, berriz, Iturenen, eginen dituzte kontuak Iturenen. Bi egun nagusiak 26 eta 27 izanen dira, astelehena eta astearte. Lehenengoan zubietarrak Iturenenera joanen dira eta asteartean, ittundar eta aurtiztarrek bisita itzuliko diete zubietarrei. Aspaldiko urteotan bezala, bisitari aunitz espero dira.



Astelehenean Zubietako joaldunak (ezkerreko argazkian) Iturenenera joanen dira. Asteartean, Ituren (eskuineko argazkian) eta Aurtizko joaldunak bisita itzuliko diete zubietarrei, inguru honetako iñauterietako irudirik famatuenean.

Artxiboa



**ERREGE BEZPERA**

Garai batean egun honetan eta San Anton Egunen artean finkatzen ziren Iñauteri Eguna, Ituren eta Zubietako gazteek egun horiek baitzituzten horretarako. Urtero urtero Iturenen afaria antolatzen da

Herriko Ostatuan eta aurtengoan 65 lagunetik goiti elkartu ziren mahaiaren inguruan. Beranduago, dantzaldiaren tarte batean, iturrendarrek joareak paratu zituzten. Zubietarrekin eta Aurtizko auzokoekin elkartu eta

hortxe aritu ziren berandu arte. Aitzinetik, arratsaldean, gaztetxoak aritu ziren joareak astintzen auzoetan barrena.

**Alfabetatze ikastaroa Iturenen**

Ibintza kultur talde-

ak eta AEKk helduak euskaraz alfabetatzeko deia zabaldu dute. Ikastaro honen helburua euskaraz irakurri eta idazteko erretasuna lantzea da. Izena Herriko Ostatuan ematen ahal da eta gero, interesatuekin orduegia erabakiko da.

**Ibintza taldearen zozketa**

Ibintza kultur taldeak antolatutako zozketaren barnean saritutako zerbakiak honako hauek dira: 1. saria (zarea), 1.944. Bigarren saria (Afaria Altxunea erretegian), 1.612.

**BERTIZARANA**

# Legasako kontzejuko aurrekontua 61 milioi pezetakoa izanen da

Frontoi estalia egitea da egitasmo nagusia

TTIPI-TTAPA

Legasako kontzejuko aurrekontua 61.138.000 pezetakoa izanen da aurtun. Kopuru horretatik 55 milioi terdi inbertsioetan erabiliko da. Gehientsuena, gainera,

Legasako Herriko Etxeak aspaldixko urtetan duen egitasmoan inbertituko da, frontoi estalia egiten, alegia. Lur-eremua eresia dago jadanik Estazio inguruan (fabrikatik Gaztelu aldera) eta

proiektua ere idatzita omen dago. Aurtun hasi nahi dute.

Ondasunak eta zerbitzuak erosteko 3.775.000 pezeta gastatuko dira eta milioi bat inguru langilearen soldatak ordaintzeko era-

biliko da.

Diru-sarrerei dagoeneko, 28.200.000 pezeta Nafarroako Gobernuaren subentzioen bitartez lortuko dituzte. Tasa eta bertzelako diru-sarreraren bitartez 10.720.200 pezeta lor-



Frontoi estalia egin nahirik dabilta Legasako

Artxiboa

tuko ditu Legasako kontzejuko.

**GOIZUETA**

# Ilusioa eta opariak ekarri dituzte aurten ere Olentzeroak eta Errege Magoek

Eskualdeko presoeri elkartasuna adieraziz kontzentrazioa egin zen Iruñeko gartzelan

ESTEBAN AROZENA

Abenduaren 24ko eta hilbeltzaren 6ko bisitari ilustreei, Olentzeroari eta Errege Magoei alegia, harrera ezin hobea egin zaie herrian aurten ere. Dena den, hau ez da harrizkoa, pardelak ilusioz eta opariz bete-beteak ekartzeko ohiturari eutsi baitiote xuxen-xuxen.

Eskoletako sei taldek erabili zuten Olentzeroa bizkar gainean ia egun osoan zehar. Arratsalde erdian berriz, trikiti soinuaz eta beti bezain alai eta jendetsua, presoan aldekoa kaleratu zen.

Ikazkin tripaundia herrian hagitz estimatua dela garbi dago beraz, baina halere ez du honek Errege Magoen xarma eta indarra zokoratzea lortu, ezta gutxiago ere! Azken bi mi-



Olentzeroa eta Errege Magoak herrian izan dira aurten ere, zakuak opariz ongi beteta zituztela

Argazkia: P.Z.

la urteetako antzera, ilunabarreko zazpiak jo orduko herrian barna zebiltzan Ekialdetik etorritako hiru erregeak, beste hainbeste asto ederrren gainean. Morroi edo pajeen presentzia ere nabarmena zen antortza argitsuak eskue-tan zeramatzatela. Errege Magoen lehen agurra plaza erdian, estalpean zeuden Maria, Jose

eta Jesusentzat izan zen. Ondoren, eta mezu bat irakurritakoan hiru urtetik bederatzitik bitarteko haur guzietan jostailuak oparitu zizkieten.

### Eskualdeko presoeri elkartasuna

Goizuetako 50 lagun eta Leitza, Areso eta Larraungo beste hainbeste kontzentratu ziren hilaren 4ean Iruñeko



gartzela aurrean. Une honetan Juan Migel Apezetxea herritarra eta Xabier Nieto aresoarra espetxe horretan daude, besteak beste. Poliziaren presentzia nabarmena izan arren ez zen istilurik gertatu. Halere, aipagarria da goizuetar bati kontzentrazioari ateratako argazkien karrere-ta belatu zioela poliziari.

### Foresna-Zurgaiako teknikariak

Hilbeltzaren 19 eta 20an, goizeko 9etatik aurrera, Udaletxean egonen dira Foresna-Zurgaiako erakundeko teknikariak. Lur sailen bat landatu nahi duten herritarrek Gobernuak dirulaguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzen berri emanen da bertan.

**ARESO**

# Eguberriaz gain, hiruhilabete bukaera ospatu dute haurrek

Txikiak lehen aldiz dantzatu zuten

JUANA M<sup>o</sup> SAIZAR

Lehenengo hiruhilabete bukaera alaitasunez ospatzeko, eskolako umeei abenduaren 19an antzerki, kanta eta dantzak prestatu zituzten eta saio polita eskaini zuten han bildu-

tako guzietan. Saioaren bukaeran jostailu bilketa egin zen famili beharretarako, Tolosako Gurutze Gorrira eramateko. Olentzeroak eskola bisitatu zuen egun horretan eta herria Gabon gauean. Urtea hasi orduko, hilbeltza-

ren 2an, Donostiarako bidaia antolatuta zegoen, Txuri Urdinera eta PIN josteta-parkera. Hurrengo igandean, kontu kontalari bat etorri zen eskolako gimnasia eta han, ipuinekin goxatuta gero, txokolate goxoa banatu zen.

### Javier Nietorekin elkartasuna

Pake-Toki elkarteak, abenduaren 28ko batzar orokorrean, Xabier Nieto herriko presoari elkartasun eskutitza idaztea eta opari bat ematea erabaki zuen. Bestalde, 30 bat aresoar, Goizuetan,



Leitza eta Larraungo jendearekin batera Iruñeko espetxera joan ziren, Nieto eta Apezetxeari elkartasuna adieraztera. Zigorren hirurik beteak dituztenez, aske egon behar dutela ere salatu zuten bildutakoek.

# Gain-gainean ditugu aurtengo ihauteriak

Hilbeltzaren 24tik 27ra ospatuko da atsoguratuen besta

JOSEBA AZPIROZ

Hurrengo larunbatean, hilbeltzak 24, arratsaldeko 4etatik aurrera, ohiturari segituz herrian egingen den eskearekin hasiko dira aurtengo ihauteriak. Hau idazterakoan egitarau ofiziala guztiz itxi gabe zegoen oraindik eta Euskaltegiak eta Gazte Asanbladak prestatutakoaren berri ez zegoen jakiterik.

Igandean Ihauteri Eguna ospatuko da eta iluntzean musika izanen da plazan. Biharamonean, goizeko 9etan, Arkiskil, Erreka, Gorritaran, eta Sakulu auzoetan barna eskea egingo da.

Arratsaldean, berriz, Kultur Taldeak antolatutako haurrendako parkea izanen da frontoian. Gauetz, musika plazan.

Asteartean, goizeko 9,30etan Erasote auzoan egingen da eskea. Arratsaldea, eskolako umeak atsoguratuak aterako dira eta beti bezala, txarangaren laguntzaz kalejiran joanen dira plazara. Han txokolate bero-beroa izanen dute esperoan. Gauero bezala, musika izanen da plazan.

## Kirol instalazioak lortzeko plataforma

Herriak merezi dituen kirol instalazioak



Gainean ditugu ihauteriak, atsoguratu eta edeki pasatzeko egun egokiak

eskatzeko eta presioa egiteko plataforma berria osatu dute herriko 30 kirolari eta elkartetek eta Udal Kirol Batzordeak. Beraien ustez Leitzak, 3.100 biztanle

eta eskolan 400 ikasle izanik, ez du kirol instalazio egokirik. Plataformaren helburu nagusia polikiroldegia egitea da, leitzarron aspaldiko ametsa.

## Etxeak berritzeko 42 dirulaguntza-eskari tramitatu dira Leitzaldean

Etxeen berrikuntzarako dirulaguntzak bideratzeko 42 espediente tramitatu dira Leitzaldeko bulegoan 1997. urtean. Bulego honetan Larraun, Lekunberri, Araitz, Bete-lu, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko eskaerak tramitatzen di-

Herriz herri egindako dirulaguntza eskariak				
Herria	Eskaerak	Aurrekontua	Maileguak	Dirulaguntzak
ARANO	0	0	0	0
ARESO	2	2.660.900	0	798.270
GOIZUETA	6	39.137.672	12.690.040	5.282.203
LEITZA	16	37.715.413	7.717.508	6.943.090
<b>Denetara</b>	<b>24</b>	<b>79.513.985</b>	<b>20.407.548</b>	<b>13.023.563</b>

ra. Denetara, 146 milioi pezetako obrak egin

dira, 54 milioiko mailegu edo prestamoak

lortu dira eta 28'4 milioiko dirulaguntzak.

## flash

❖ **1957koen kinto-afaria**  
Urtarrilaren 27an, 1957. urtean jaiotako kintoek afari bat egingen dute Musunzahar estatuan. Izena emateko epea hilaren 20a arte da.

❖ **Aurrera Kirol Elkarteak**  
zenbait mendi mar-txa antolatu ditu aurtengo urterako. Lehendabizikoa, Leitzza-Zuparobi-Ezkurra, hilaren 18an izanen da.

❖ **Herriko mapa toponimikoa**  
argitaratu berri du Leitzako udalak. Mila pezetaren truke saltzen da Udal-idazkaritzan eta herriko bi liburudendetan (Astiz eta Maimur).

❖ **Foresna-Zurgaia**  
Hilbeltzaren 23an, goizeko 9etatik aurrera, Foresna-Zurgaia, Nafarroako Baso Elkarteko partaide batzuk etorriko dira Udaletxera, Nafarroako Gobernuak oihan jabezi eskaintzen dizkien dirulaguntzak bideratzeko (aldarioak, garbiketak... egiteagatik).

❖ **Zinea**  
Hilbeltzaren 16an eta 18an, «Carne trémula» eta hilbeltzaren 18an, «El jorobado de Notre Dame» filmeak eskainiko dituzte zinean.

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!

**Basa Kabi**

Tel. 510125 • Faxa: 610965  
LEITZAko gaina

**GAZTELU ITURGINTZA**

**KALEFAKZIOA**

Elgoien 32  
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

**ttipi-ttapa**

6.500 harpidedun  
23.000 irakurle

**BAZTAN**

# Herrietako kontu egoeren berri eman dute Errege Egunean

Elizondon milioi bateko superabitarekin bukatu dute urtea

J. OSEBA I.

Baztango hamabortz herrietako alkateek ia-zko kontuen berri eman zioten beraien herritarrei Errege Egunean, aitzinako ohiturari eutsiz.

Elizondokoa izan zen, beti bezala, jendetsuena eta Santi Aldako alkateak agertutakoaren arabera 1.016.506 pezetako superabitarekin. Izan ere, 13.228.097 pezetako gastuak izan baziren ere –sekulan baino gehiago–, diru-sarrerak 14.224.603 pta-ra ailegatu ziren.

Kanposatuko kontuak ere aldeko saldoa eman zuen, 1.428.648 pezetako gastuen aldean, 2.859.490 pezetara baitziren kutxan. Herriarrek Ermitegiko biderei buruz lehendik hartutako akordioa berretsi zuten eta Iturriko-Zokorako bidearen desbideraketa ere onartu zuten. Balleko Etxeak Elizondon egin gogo duen espaloien moldaketa «lehenbailehen egitea» eskatu zuten.

Kontuak agertzeaz gain, Herriko Etxean moldatutako museo xume baina interesgarri a eta kargodunak biltzeko eta artxiborako erabiliko den aretoa zabaltzeko aprobetxatu zuten Errege Eguna.



## 110 haurrek parte hartu zuten ikastolak antolatutako Eguberrietako Krossean

Abenduaren 14an, Elizondon, Baztan Ikastolak Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin antolatutako Eguberrietako krossa burutu zen. 110 haurrek parte hartu zuten eta denentzako sariak izan baziren ere, hemen dituzue maila bakoitzean sailkatu ziren lehenak:

**Ttikiak:**

- |                  |                       |
|------------------|-----------------------|
| 1. Eurne Sobrino | 1. Sergio Eskudero    |
| 2. Nerea Gil     | 2. Adur Otxandorena   |
| 3. Miren Sobrino | 3. Ioritz Mitxelorena |

**Benjaminak:**

- |                     |                    |
|---------------------|--------------------|
| 1. Estitxu Arraztoa | 1. Fermin Elizegi  |
| 2. Iratxe Otero     | 2. Josu Baraibar   |
| 3. Nahikari Amiano  | 3. Denis Lizasoain |

**Alebinak:**

- |                   |                    |
|-------------------|--------------------|
| 1. Garbiñe Goñi   | 1. Jon Sansiñena   |
| 2. Lurdes Elizegi | 2. Javier Arregi   |
| 3. Naxara Meoki   | 3. Jokin Urtizbera |

## Iñauterietako mozorroen tailerra antolatu du Gazte Asanbladak

Joan den larunbatean abiatu zen Baztango Gazte Asanbladak antolatu duen mozorro-tai-

lerra, eta iñauteriak ailegatu bitartean larunbatero-larunbatero arratsaldeko Setan elkartuko dira Baztandarren Biltzarraren egoitzan, jauntzi desberdinak egiten ikasteko.

Izen-ematea dohai-nik da, eta mozorroak osatzeko erabiliko di-

ren material guziak naturalak izanen dira; telta puxkak, adarrak... Norbaitek tailer hauei buruzko informazio gehiago nahiko balu, Mikel eta Joseba Ortegarekin harremanetan jartzea dauka, telefono honetara deituz: 580783.

*Personaia*

«Herri honen alde borrokan segitzeko ilusioa mantentzen dut»

Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak sei urteko gartzela zigorra ezarri dio Xotero Etxandi arraioztarrari, sententziaren arabera 'talde armatua laguntzeagatik'. Errekurtsoa ezarria badu ere, ez du itxaropen handirik Xoterok. «Sententziak, bidegabekeria izanik ere, ez nau batere harritu, Mahai Nazionalarekin egin dutena ikusi ondotik». Sei urteko gartzela zigorra «astakeria eta kolpe arras gogorra» iruditu zaio, baina animoz ongi mantentzen da, «herri honen alde borrokan segitzeko ilusioa mantentzen dut». Aitzinetik hiru aldiz egona da kartzelan Etxandi eta, noski, ez du batere oroitzapen onik. Jaso dituen elkartasun mezu ugarien artean gehien poztu duena bere neskalaguna eta bi semeena izan da. Bere ustez, «sententziak nere ama kondenatzen du, batez ere, nere inguruan negar gehien egin duena bera izanen da».



Xotero ETXANDI

**MENDI OSTATUA**  
Santiago 25 - © 580313  
ELIZONDO

**SAS KATZ** fontanería calefacción  
GA Empresa colaboradora de **REPIJOL** AUTANO  
**Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...**  
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

**MENDIALDE Jatetxea**  
Etxeko gasnak saltzen ditugu  
Dantxarinearako bidean, 66. km.  
AMAUIR • Tfnoa: 45 30 60

# San Anton Eguna ospatuko da larunbat honetan Elizondon

Esne-behiaren zozketa, ekitaldirik aipagarriena izanen da

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, hilbeltzak 17. ospatuko da San Anton Eguna eta urtero bezala, Elizondon bilduko dira inguruko nekazariak. Betiko moduan, Erresidentziak antolatzen duen esne-behiaren zozketa izanen da ekitaldirik aipagarriena. Behiarekin batera, zerria, bi bildots eta magra zozketatuko dira. Eguerdian hameketakoa prestatuko du Gaztanberaren Kofradiak eta bertsolariak arituko dira plazan.

Arratseko 8etan, azkenik, Elizondoko Kasinoan, antzerki emaldia antolatu du Elizondoko herriak. Irurritako Aranabia antzerki taldeak «Egun haundia» antzeslana eskainiko du.



## Gartzaindarrak txapelkun Baztandarren Biltzarrak antolatutako lehendabiziko mus txapelketan

Baztango lehendabiziko mus txapelketak errekte haundia izan du, ehun bikote inguru aritu baitira. Final nagusian Amaiur, Gartzain, Lekaroz eta Zigako bikoteak aritu ziren eta Gartzaingo Joxe M<sup>a</sup> Ursuegi eta Luis M<sup>a</sup> Oiaregi suertatu ziren txapelkun Amaiurko bikotea garaitu ondotik. Sariak, bertako produktuez osatutako saskiak izan ziren, eta partiden ondotik izandako afarian banatu ziren.

Argazkia: Josu INZIARTE

## N-121-A errepideko seinaleak euskaratzeko eskaria egin du Balleko Etxeak

Balleko Etxeak aho batez onartu du Belateko tunelen eta errepide berriaren dauden seinaleak euskaratzeko eskatuz alkateak aurkeztutako mozioa. Udalak Herri-lan, Garraio eta Komunikabide Sailera eta Hizkuntz Politikara igorri duen idatzian, seinale hauek Euskararen Legeak dioenari ego-

kitzea eskatzen da, hau da, bi hizkuntza ofizialetan eta euskarari lehentasuna emanez. Bertzeak bertze, tunelen barneko panel elektrikoetako informazioa, hainbat seinale («Francia» hitza adibidez zortzi aldiz ageri da) edo panel informatiboak gaztelera hutsean idatzita daude.

## Mendi aprobetxamendua

Erdizko-Erreka inguruan 45.535.000 pezetan baloratutako 5.874 pago ateratzeko baimena eman du Ingurugiro Sailak. Balleko Etxeak enkantean atera du probetxamendua, 4.530 m<sup>3</sup> zur eta 650 m<sup>3</sup> su-egurra ematen dutela zehaztuz. Salmentaren %20 mendi lanetan gastatuko da.

## Plantazioetarako dirulaguntzak

Nafarroako Gobernuak 1998ko mendilandaketarako ematen duen dirulaguntza eskatu edo informazioa bildu nahi izanez gero urtarrilaren 15ean, goizeko 9etatik 12etara, Foresna-Zurgaia, Nafarroako Baso Elkarteko partaide batzuk etorriko dira Elizondoko Udal Etxera.

## flash

### Luberriak hobetzeko

17.290.000 pezetako proiektua egingen du Balleko Etxeak. Horretarako 13.830.000 pezetako dirulaguntza jasoko du Nafarroako Gobernutik.

### Aranabia pala txapelketa

Irurritako Aranabia pala motza txapelketaren bosgarren edizioa laister jokatuko da. Izena emateko epea urtarrilaren 17an bukatuko da, bikoteko 3.000 pezeta utziz. Horretarako, 452140 telefonora deitu behar da (arratsaldeko 6etatik 9etara). Txapelketa 24an hasiko da.

### Irurritako Kultur Astea

Irurritako Kultur Astea burutu da Guraso Elkartek antolatuta. Aranabia antzerki taldeak «Egun haundia» antzeslana eskaini zuen eta arrakastatsua suertatu zen. Balorazio arras positiboa egin dute antolatzaileek.

### Istripua Oronozen

Abenduaren 30ean, kamioi batek Oronozko Katalan etxea jo zuen, frenorik gabeko gelditu ondotik. Istripu ikusgarria izan bazen ere -kristalezko basoetaz bete zatorren- ez zuen zauriturik ezta kalte material handirik sortu, zorionez.

**OSKORRI** *liburudenda*

- Liburuak-prentsa-mapak-gidak
- Argazkilaritza materiala
- Papertegia-inprenta

© 592245 • Petrina • **ORNOZ-MUGAIRI**

**BAZTAN OPTIKA**

ORDUTEGIA:  
Astearte eta ortzial goizetan,  
10etatik 1,30etara eta asteazken  
arratsaldetan, 5etatik 7,30etara

Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

*Eskisaroi  
jatetxea*

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013  
**ELIZONDO**

**ZUGARRAMURDI**

# Urtezaharreko gaua: afariak, besta eta urte berriari ongietorria

Bertzalde, haize boladek zenbait kalte sortu dituzte herrian

KORO ETA MARGARI

Pasatu zaizkigu Egu-berri egunak beren Olentzero, kantu, afari, opari eta gainerako ixtorioekin. Gau zarata-suena eta martxosoen, noski, Urtezahar gaua izan da: Posadan ehun lagun bildu ziren eta Martinean bertze hoge. Afal ondotik ostatueta giro ederra sortu zuten; batenbatek ere ibili behar izan zuen Xareta eta Sutegiko mahainen azpitan zerbitzatu bilatzen, gehienek berri, ostatutan harrapatu zuten behar zutena, eta guztien buruan bihar-ramuneko eguerdian oraindik Kisulabeko atean mahats jaten ageri zen jendea. Baina ez zazuela uste Eguberriko giroa finitu zaigunik... oraindik plazako argiak hor gelditzen zaizkigu, eta apostuak hortxe dau-



Haize boladek kalteak sortu dituzte zenbait lekutan. Halere, herrian eginak gaude haize bolada hauetara eta gure izakeran ere zerikusirik ba omen dute, erraten dutenez.

Artxiboa

de: Iñauteriak arte? Aste Saindura arte? edo bes-tetako argietara lotuko dituzte?

## Haize eroa

Neguan gaude, bai-na hala ere udazkenean izaten ditugun haize ika-

ragarriak jaso behar izaten ditugu azken egun hauetan. Kalte batzuk ere sortu ditu: alde ba-

metik Xaretako bidean haritz haundi bat bota zuen, bidea oztopatuz; bertze aldetik Altzate-nerko toldoa eta kartelak ereman zituen. Halere, eginak gara haize bolada haundi hauetara, eta aspalditik erraten da Azkaine eta Zugarramurdi jotzen duen haizeak zerikusi haundia duela zuamurdiar eta azkaindarren ero-haizearekin.

## Lezeen gestioa eta Herriko Etxeko garbiketa lanak

Udalak bertze bi urtez luzatu ditu lezeetako zainketa alde bate-tik eta eskola, kontsul-ta eta Herriko Etxeko garbiketa lanak bertze-tik. Lezean Margari eta Juanmik segitzen dute, eta garbiketak Maritxuk egingen ditu.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

# ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO



## Maderas GOMEN

- Era guzietako atek, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 58 06 45

**BAZTAN FUNERARIA**

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO  
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

## muñeca de Trapo



**IRUN**

Luis Mariano, 35  
Tel.: (943) 62 52 55



**SARA**

# Hilariendako lekua haunditzeko 5.650 metrako lur-eremua erosi du herriak

150.000 liberen alde saldu dute Zubietakoek

MIXEL ETA JACQUELINE

Herriko batzarrak ja-danik erabakia zuen hilariendako eremua haunditzea, orainartirainokoa hertsiegia izanik. Bigarren urratsa luraren aurkitzea izanen da eta azkenean 150.000 liberen alde, 5.650 m<sup>2</sup>ko lur-eremu batez jabetu da, Stéphanie Miura Irtzoki Zubietako etxeko andereari esker.



Orain artirainoko eremua erxtiegia zen

## Kalastraren egokitze eta gaurkotzea

Eremuaren Okupatzeko Planoa (POS) de-



## Olentzerok opariak eskaini zituen ikastolan

Ohi den bezala, a benduaren 19an Olentzerok opariak eskaini zizkien ikastolako haurrei. Ageri denez, nexka-mutikoez ahoak eta begiak zabal-zabalik aditu zituzten ikazkinaren azalpenak.

la-eta, eta zerbitzu desberdinen beharrak ikusiz (telefona, argia, ura...) kalastra informatika bidez egokitzea beharrezkoa da. Lan hau 80.000 liberatarat helduko da eta SARL SIG-

IMAGE lantegiak burutuko du. Horretarako Estaduaren laguntza bat eskatua izanen da.

## Lur errenten saria hektaraka

Urtero berrikusiak

izaten dira lur errenten sariak hektaraka eta lau mailetan banatuak dira. Sarari dagokionez, "Euskal Herriko mendia" izenekoan kokatzen da eta departamenduak 229 eta 794

liberen artean mugatzen du hektara. Laborantzaz arduratzen diren hautetsien baimenarekin Herriko Etxeak hektararen saria 750 libere-tan finkatu du aurtengo saria.



# ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa


Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562  
IRURITA - BAZTAN

## Sukalde eta Bainu Mobleak

*Egoki-ren banatzaile  
baimendua*



## ttipi-ttapa



## Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren

## lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.  
Eskatu informazioa.

**631188**



## ARMUA Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI



## JATETXEA

Tfnoa: 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

*Galarza*



## BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14  
BEINTZA-LABAIEN

## EZKONTZAK

**Francisco Javier Bidaur Andueza** eta **M<sup>a</sup> Luz Telletxea Zozaia**, Bera eta Igantzikoa, abenduaren 7an.

**Vicente Taberna Sein** eta **Raquel Fagoaga Tolosa**, Berakoak, urtarrilaren 3an.

**Fernando Trebor Unzue** eta **Izaskun Diaz Aizpurua**, Iruñea eta Donostiakoa, abenduaren 20an.

## JAIOTZAK

**Lucia Etxeberria Aranaz**, Goizuetakoa, abenduaren 22an.

**Xabier Gaztelu Iturregi**, Oronoz-Mugairikoa, abenduaren 14an.

**Manex Zapiain Abuin**, Berakoa, abenduaren 22an.

**Ainhoa Berasategi Artieda**, Berakoa, abenduaren 27an.

**Mikel Etxenike Betourne**, Zugarramurdikoa, abenduaren 12an.

**Lorenzo Etxenike Betourne**, Zugarramurdikoa, abenduaren 12an.

**Liher Lastiri Aranbarri**, Sunbillakoa, abenduaren 9an.

## HERIOTZAK

**Jose Lazkano Zabaleta**, Leitzakoa, azaroaren 26an, 66 urte.

**Esperanza Zabaleta Goldarazena**, Leitzakoa, azaroaren 27an, 77 urte.

**Francisco Olano Billabona**, Leitzakoa, abenduaren 1ean, 84 urte.

**Jose Manuel Arribillaga Baraibar**, Leitzakoa, abenduaren 2an, 69 urte.

**Dominica Caballero Aierdi**, Leitzakoa, azaroaren 25ean, 59 urte.

**Jose M<sup>a</sup> Azpiroz Zabaleta**, Leitzakoa, abenduaren 24ean, 81 urte.

**Antonio Andueza Larralde**, Lesakakoa, abenduaren 25ean, 73 urte.

**Ixabel Elizagoien Berroeta**, Lesakakoa, urtarrilaren 7an, 62 urte.

**Valentin Etxenike Huizi**, Goizuetakoa, urtarrilaren 2an, 74 urte.

**M<sup>a</sup> Luisa Zozaia Eskudero**, Goizuetakoa, abenduaren 17an, 86 urte.

**Miguel Angel Goizueta Goizueta**, Goizuetakoa, abenduaren 22an, 33 urte.

**Mariano Elizetxe Arraztoa**, Amaiurkoko, abenduaren 10ean, 80 urte.

**Francisco Sobrino Petite**, Elizondokoa, abenduaren 11n, 80 urte.

**Concepcion Lopez Gonzalez**, Elizondon, abenduaren 15ean, 93 urte.

**Juan Jose Iraola Maritorea**, Berroetakoa, abenduaren 17an, 74 urte.

**Martin Otxandorena Otxandorena**, Elizondokoa, abenduaren 24an, 84 urte.

**M<sup>a</sup> Josefa Vega Oiartzun**, Elizondon, abenduaren 25ean, 82 urte.

**Mariano Gomollón Gil**, Elizondon, abenduaren 26an, 74 urte.

**Jose M<sup>a</sup> Errandonea Irazoki**, Berakoa, abenduaren 10ean, 84 urte.

**Jose Antonio Aioroa Nabaz**, Iturengoa, abenduaren 16an, 94 urte.

**Bautista Pellejero Ugalde**, Aresokoa, abenduaren 22an, 94 urte.

**Maria Hernandorena Mariezkurrena**, Eratsungoa, abenduaren 22an, 76 urte.

### ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurtoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbitetarako produktuez bete, emango dizugu.

Ez ahanzi familiarren liburuxka!

**IRUÑEKO KUTXA**



## TXARANDAKA TAILERRAK MOTO & BIZIKLETAK

## QUAD ZORAGARRIEKIN

momentu alaiak pasatzera gonbidatzen zaitu

Probatu zure abilitadea

400 metroko zirkuitu berexian

Eta nahiago baduzu, eman itzuli bat

nahi duzun lekutik zure lagunekin.

*Ederki gozatuko duzu!*

*Espero zaitugu!*

**BERAn**

Bidasoa karrika, 50

Tel.: 948-630589

## Jose Maria AZPIROZ ZABAETA

— APAIZA —



Leitzan, 1997ko abenduaren 24ean hil zen. Haren familiak heriotz honen aurrean izandako erantzuna eskertzen dizue.

Leitza, 1997ko abendua

## Berako historia aztertuko du Bidasoa Ikerketa Zentroak

Udaleko artxiboan oinarrituko den ikastaroa emanen dute

Berriki Lesakan egin duten bezalaxe, Berako historiari buruzko ikastaro bat antolatu dute *Bidasoa Ikerketa Zentro*koek. Udaletxean gordetzen diren dokumentuetan oinarrituta, garai bateko beratarrek nola bizi ziren ezagutzea da ikastaroaren xede nagusia. Demografia, nekazaritza, habitata, komunalak, ekonomia, gizartea eta politikaren inguruko gaiak aztertuko dira, XVI. mendean hasi eta XIX. mendera bitartean, bereziki.

Aipatu dugun bezala, Lesakako historiari buruzko ikastaro arrakastatsua burutu du talde berak, eta 20 lagun aritu dira Udaleko artxiboak aztertzen urriaren hondarretik aitzinera. Hala ere, Beran ez omen dago Lesakan bezainbetez dokumenturik, ezagunak ez diren arrazoien-gatik.

Euskaraz zein espainolez egiten ahaliko da ikastaroa, 8 egunez luzatuko dena, astero bi orduko saioak eginez. Era-maileak Fernando Mikelarena (Historian doktorea), Juainas Paul (Geografia eta Historian lizentziatua) eta Izaskun Abril (Geografia eta Historian lizentziatua) izanen dira, baina atzo bertan,

eta ikastaroaren sarrera gisa, Andoni Esparak Bortziritetako harrarriaz solas egin zuen Berako Kultur Etxean. Erran behar da izena emateko epea ere atzo, urtarrilak 14, akautu zela.

### Ekintza gehiago

Ikastaro honetaz gain, eskualdeko ondare kulturalaren balorizazioa bere lehen fasean prestatzen ere ari dira, eta horretarako *Cederna-Garalure* elkartetik dirulaguntza jaso dute. Errotak, olak eta meategiak ikertuko dituzte eskualdeko arkeologia industrialaren ezinbertzeko faktore gisa.

Halaber, proiektu gehiago ere badute *Bidasoa Ikerketa Zentro*koek esku artean. Euskal Herri kantauriarreko baserriaren ekonomia garaikidea lantzeko 5 urteko estudioa aurten abiatzea espero dute, eta gero urtekari bat argitaratzea, artikulu solteak eta azterketa sakonak tartekatuz. *Behinpin* elkartearekin batera, aldiz, zonaldeko ahozko historiaren gaineko lehiaketa martxan paratzeko asmoa ere badute. Familia eta baserria aitzaki hartuta hitzaldi zikloa antolatuko dute, eta gaian adituak diren mintzalariak ekarriko dituzte horretarako.

## Euskal Kantu Txapelketako finala burutu zen Bordatxon

Leitza eta Goizuetako taldeak aski ongi aritu ziren

Joan den urteko abenduaren 20an Bordatxon ospatu zen Euskal Kantu Txapelketaren finalean Sakanakoak nagusitu ziren taldeka, baina Leitza eta Aurki taldeak ere lortu zuten Euskal Herriko finalera pasatzea, azken sailkapenean bigarrenak izan zirelako. Goizuetako Dani, Ainara eta Evak osatu zuten taldeak, bertetik, entzulegoaren saria jaso zuten.

Ainhoa Apezetxea eta Oskar Estanga ere sarituak izan ziren, sormenarengatik hain zuzen ere.

### Gero eta maila hobea

Doneztebeko Bordatxo dantzalekura jende ausarki bildu zen Kantu Txapelketa aditzera, eta baita ondotik egin zuten afarrira ere.

Epaimahaia osatzen dutenek urtetik urtera maila hobea ikusten dutela azpimarratu zuten saioa eta gero, eta horren seinale da, euren ustez, aurten txapelketarako espreski sorturiko zazpi kantu aurkeztu izana.

## Xabier Legarreta aranoarra nagusitu zen Xalto Sarian

Abenduaren 26an burutu zen finala Goizuetan

Abenduaren 26an burutu zen Goizuetan Xalto Sariaren finala eta bertan Xabier Legarreta aranoarra suertatu zen txapelkun. Bigarrena Estitxu Fernandez izan zen eta hirugarrena Amets Arzallus. Beraienkin batera Iñigo Olaetxea, Erika Lagoma eta Oskar Estanga aritu ziren bertso kantari Umorre Ona elkarteko afa-londoan.

Saioko gidaria Xa-

bier Silveira izan zen, eta bertsolarietako egin behar izan zituzten lehenengo ariketak harrigarriak izan ziren entzule askorentzat. Izan ere, bi taldetan banatu zituen sei bertsolariak eta bakoitzak bosna bertso kantatu behar izan zituen gai librean. Ondoren, bertsolarietako puntu banari erantzun eta hiruna bertso kantatu zituzten bikoteka zortziko handian, gai beraren

inguruan. Bukatzeko, bakarka aritu ziren, eta gai baten inguruan bina bertso osatu behar izan zituzten.

Bertsozaleen elkar-atea eta Goizuetako udala izan dira Xalto Sariaren antolatzaileak eta pozik azaldu dira laugarren edizio honek emandakoarekin. Nafarroa eta Iparraldeko 24 urtez beheitiko bertsolarietako zuzenduta dago sari hau.



Xabier Legarreta eta Estitxu Fernandez, txapelkun eta txapelkunorde.



## ERREKA (neska kadeteak)



### Klubaren datuak



**Elkartearen izena:** Erreka kirol Taldea  
**Sorrera:** 1975  
**Bazkideak:** 190  
**Helbidea:** Merkatarien karrika, 27 - 1. 31740 Doneztebe  
**Tel.:** 450991  
**Aurrekontua:** 2.546.000 pta  
**Lehendakaria:** Pedro Bañares  
**Sekzioak:** Eskubaloia, atletismoa, mendia, pilota eta txirrindularitza. Aurten patinaia eta mendi bizikleta.

Jokalaria	Postua	Adina	Altuera
Lide Treku Urreta	Atezaina	15	1,65
Carmen Pikabea Fuentes	Atezaina	14	1,74
Maria Bañares Eskudero	Zentrala	15	1,58
Ainara Mendiburu Altzuri	Laterala	15	1,65
Saioa Gago Povedano	Laterala	15	1,61
Patricia Andueza Martiarena	Laterala	14	1,67
Maidier Irazoki Mikelarena	Laterala	14	1,62
Beatriz Ostolaza Gaspar	Laterala	15	1,61
Edurne Mutuberria Estanga	Pibotea	15	1,58
Iratxe Eizagirre Aranburu	Pibotea	14	1,70
Aitziber Erasun Zugarramurdi	Hegalekoa	15	1,56
Diana Martin Castrillejo	Hegalekoa	14	1,61
Pilartxo Mitxelorena	Hegalekoa	14	1,62
Arantxa Iribarren Iribarren	Hegalekoa	14	1,57
Maidier Bertiz Andueza	Hegalekoa	14	1,62

**Entrenatzailea:** Iñaki Martinez Lizaso

**2. Entrenatzailea:** Nerea Telletxea Santesteban

**Delegatua:** Ainara Mutuberria Retegi



**Iñaki Martinez LIZASO** Entrenatzailea

«Astean egun pare batez elkarrekin Iruñera autobusean elkarrekin joateko»

### Zein helbururekin hasi duzue denboraldia?

Kirola egitea da helburu nagusia, baita Erreka elkartea pixko bat haunditzea ere. Dena kirolarengatik egiten dugu. Astean egun pare batez, astelehen eta asteazkenetan, elkarrekin egon eta entrenatzea, asteburuan Iruñera autobusean joatea, de-

nak elkarrekin, hori arrasanoa da.

### Taldea hasi berria izanik, ez da errexa izanen partiduak irabaztea, ez da?

Neska hauek berandu xamarra hasi dira jokatzeko eta lau-bost urteko esperientzia duten eta astean hiru entrenamendu egiten dituzten taldeen kontra arituz, Baztan, Oberena...

## Doneztebeko neskek, eskubaloian trebatzen eta bidea zabaltzen

Aurten lehendabiziko aldiz plazaratu ditu Erreka elkartek nesken eskubaloian taldeak, bat kadete mailan eta beste infantil mailan. Biak Nafarroako Kirol Jokoen ari dira eta sailkapenean gaizki bada biltza ere, ez da hori beraien xede nagusia, kirola egitea baizik. Iñaki Lizaso entrenatzaileak gogoratzen duenez,

«iaz 13-14 urteko neskek etorri zitzaizkidan, eskubaloian entrenatzen hasi nahi zutela erranez. Eskubaloian oinarriak eta pixko bat jokatzeko ikasi zuten eta aurten ligan hasteko animatu dira». Sailkapena ez da, beraz, beraien burukomunikatzailea. «Treatzen joatea, taldea egitea, eskubaloian gustoa har-

tzeko joatea urte batzuetan eta, zergatik ez, urteren batean belarri polita badator, behar bada sailkapenari ere begiratuko dio» dio Lizasok.

Jakina denez, Doneztebeko neska gazteen entrenatzailea erremon-telari profesionala ere bada. Horregatik, sarritan asteburuetan partiduetara joatea ezinezkoa suertatzen zaio. «Orduan Nerea Telletxea joaten da kadete-

ekin, bera da 2. entrenatzailea. Infantiletan, berriz, Mikel Rekarte eta Patxiku Irigoien dira entrenatzaile lan bete-tzen dutenak».

Etorkizunera begira, Erreka neskek aitzinera segitzeko bidea dutela ikusten du Lizasok eta laister jubenilen taldea eta gero, agian, helduen mailakoa ateratzea espero du. «Izan ere, 14 neska konbokatzen ahal dira eta kadetetan 18 gara entrenatzen eta in-

fantiletan 20, beraz batzuk kanpoan gelditu behar izaten dute. Eskubaloian aritzeko gazteak badaude, gero ikusi beharko neskek segitzen duten edo ez».

Gizonezkoen talde nagusia ere segitzen du Lizasok. Bigarren fasea hasi berria duten honetan, lanik haundienak orain izanen dituzte. «Lehengomultzoa errexamarra zen, balio duten balio duten edo ez orain erakutsiko dute».

**BOITE**  
*pronton*



**ERREKA (neska infantilak)**

❖ **Beti Gazte txapelkun 560 kilotan**

Lesakako Beti Gazte taldeak eskuratu du Nafarroako sokakira txapelketa, 560 kiloz beheitiko kategorian. Honenbertez bina txapelarekin gelditu dira Areso (680 eta 600 kilo) eta Beti Gazte (640 eta 560). Orain, otsaileko Euskadiko txapelketarako prestatzen ari dira.

❖ **Futbol derbi berria**

Norgehiagoka ofizialean lehen aldiz jokatu zuten urtarrilaren 4an Leitzako Aurrera eta Baztango futbol talde nagusiek. Leitzarrak 1 eta 0 nagusitu ziren, Daniren gol batekin.

❖ **Eskuz binakako txapelketa**

Eskualdeko ordezkariak ez dute aparteko lanik egin, orain arte. Retegi II eta Errandoneak bikotea osatzen dute eta bi partidu irabazi eta bi galdu dituzte. Olai-zolak aurten debutatu du eta Arretxerekin 2 partidu irabazi eta 3 galdu ditu.

renatu, asteburuan  
ori dena arras sanoa da»

Izugarrizko palizak ematen dizkigute, baina pixkan-pixkan hobetzen ari gara.

**Gustora zaude, orduan, egiten duzuen lanarekin?**

Izugarrizko aldea nabaritu dut, iaz ez zekiten baloia hartzen ere. Oraindik ez dugu izugarrizko mailarik baina ez gara lotsagarri geratzen ere.

Jokalaria	Postua	Adina	Altuera
Leire Uterga	Atezaina	12	1,56
Joana Oteiza	Atezaina	13	1,70
Izaro Martin	Zentrala	12	1,63
Maria Mutuberria	Zentrala	13	1,65
Haizea Erkizia	Laterala	12	1,73
Nahia Erregerena	Laterala	12	1,70
Elur Juanena	Laterala	13	1,70
Vanessa Iribarren	Laterala	13	1,71
Estitxu Urrotz	Laterala	13	1,70
Uxo Vicente	Laterala-pib.	13	1,65
Irun Altu	Pibotea	12	1,68
Maria Larretxea	Pibotea	12	1,62
Amaia Gartzia	Hegalekoa	12	1,57
Lorena Almandoz	Hegalekoa	12	1,68
Eider Altu	Hegalekoa	12	1,55
Maria Otermin	Hegalekoa	12	1,61
Ainhoa Mutuberria	Hegalekoa	12	1,50
Mirian Mindegia	Hegalekoa	13	1,60

**Agesta arantzarra txapelkun suertatu da jubenil mailako ETB-DV txapelketan**

Ander Agesta arantzarra, Iker Iriarte burlatarrarekin bikote eginez txapelkun suertatu da ETB-DV txapelketan, jubenil mailan. Doneztebeko frontoian, Inoxente Egunean jokaturako finalean 22-17 irabazi zieten Errioxako Gabarri eta Zurdo de Bañosi. Finala hagitz berdindua izan zen eta hamazazpina berdin egon ondotik, bi nafarrek behar zi-

tuzten bortz tantuak segidan lortu zituzten. Sakez bortz tantu erdietsi zituen Arantzako aurrelariak, baina, berak adierazi zuenez «nerbio aunitzekin hasi gara eta horrela galdu ditugu lehenbiziko tantuak. Gero Iriarte sendo aritu da eta erremontatu ahal izan dugu».

Afizionatu mailan berriz,

Berasaluze VIII eta Goñik 22-20 irabazi zieten Galarza eta Auxkini. Hau ere partidu gogorra eta ikusgarria izan zen. Zortzirehun bat ikusle joan ziren frontoira.

**Gazte mailako irabazleak, Iriarte eta Agesta, zutik. Totorika, helduen mailan txapelkun suertatu ziren Goñi eta Berasaluze VIII. Argazkia: LEGARRA**



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## INAUTERIAK

### SUNBILLA

► **Urtarrilaren 23tik 25era**

### ITUREN eta ZUBIETA

► **Urtarrilaren 24tik 28ra**

Astlehenean Zubieta-ko joaldunak Iturenera joanen dira eta astear-teen Ituren eta Aurtizko-ak Zubieta.

## KONTZERTUAK

### LESAKA

► **Urtarrilaren 18an**, igandea, EGAN talde-ak joko du arratsaldeko 6etatik 10etara.

### BERA

► **Urtarrilaren 16an**, Morau eta Joxik joko dute Bidaxka ostatuan, arratseko 10etan.

► **Urtarrilaren 31n**, berriz, Live in the Attic eta Hondarribiko bertze talde bat ariko dira Bidaxkan, arratseko 9etatik aitzinera. Dohainik.

## ERAKUSKETAK

### BERA

► **Abenduaren 23tik 25era** Berako Maddi eta Azkoitiko Txabiren artelanak ikusgai paratuko dituzte Bidaxka ostatuan.

## OSPAKIZUNAK

### LESAKA

► **Abenduaren 18an**

Igande honetan burutuko da urtero egiten den San Anton eguneko erromeria. Hainbat mendizale biltzendirako egun horretan San Antongo ermita inguruetan.

# AGENDA PRAKTIKOA

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.600 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 166 pta./kilo
- **Zerramak**: 100 pta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**
  - **Idixkoak**: Pta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 570 |
| 1.koa ..... | 550 |
| 2.koa ..... | 530 |

- **Urruxak**: Pta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 590 |
| 1.koa ..... | 560 |
| 2.koa ..... | 550 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.

- **Aretze tikiak** (15 egun inguruokak):
- |  |
|--|
| <b>Nabarrak</b> : urruxak 18.000 eta idixkoak 26.000 Pta.  |
| <b>Mestizoak</b> : urruxak 28.000 eta idixkoak 39.000 Pta. |

**Behi zaharrak**: Behi nabar gizona: 380 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE



Iturengo hartza loalditik ateratzen denean udaberria hurbil da. Animalia honek heriotzaren ondoko berpiztea islatzen omen du.

## HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

### Heldu dira inauteriak!

Urtero gertatu ohi den bezala, eguberriak pasa bezain abudo ailegatu zaizkigu inauteriak. Dagoeneko herri eta auzo batzuetan besta koloretsu hauek ospatzen hasi badira ere, gehienetan prestaketak martxan jarriak dituzte egun haundiari begira.

Hilabete honetan Ituren eta Zubietan ospatuko dituzte, 27 eta 28. egunetan hain zuzen. Jende ugari bildu ohi da urtero bi herri hauetan ohituraz betetako besta hauekin gozatzeko. Aurretan ere horrela izanen direlakoan gaude.

Baina ez dira hoiak inauteriak ospatuko dituzten bakarrak. Sunbillan hilaren 23tik 25era burutuko baitituzte, eta baita Leitzan ere, 24tik 27ra.

Pixkanaka inauterietako izpiritu profanoa herri-herri hedatuko da, kale eta auzo guztiak kolore, dantza eta musikaz betetzeko.

Lotsak alde batera utzi, beraz, eta hasi zaitezte ganbarako trapu zaharren artean bilatzen, seguru gaude moztorro egokia aurkituko duzuela.

## LIBURUAK



«Euskal Herria esentziak»

Xabi OTERO

TXORIA ERREKAN

Iruñeako Xabi Otero argazkilaria urteak daramatza argazkilaritzaren munduan lanean. Denbora horretan hamairu argazki liburu karrikaratu ondok, denak monotematikoak, Euskal Herriko hanibat xoko eta bazter erakustera eman dizkigu oraingoan, beti ere bere ikuspegi eta estilo bereziaz. Zazpi herrialdeetako paisaia, herri eta pertsonaiei egindako


instantanea hauetan gure zonaldeko imajinak ere aurki ditzakegu. Arantza, Ituren, Arraioz eta Zugarramurdikoak besteak beste, dudarik gabe kolore eta erakargarritasun haundikoak. Aipatzekoa da, gainera, irudiez gain kultur munduko zenbait pertsonaien testuekin horniturik dagoela liburua. Inguruko xokoak maite dituztenentzat ezinbestekoa.

### Merkealdiak

Eguberriak pasatu berriak eta batek baino gehiagok bere buruari galdetzen dio ea ez ote garen erotu. Izan ere, azken egunetako gastuen ondorioei erreparatzen hasi eta saltzaileek deituta buru belarri murgiltzen gara urtarreleko ohiko merkealdietan. Eta kontraesana ikaragarria bada ere, merkealdien eskutik mugarik gabe gastatzeari ekiten diogu urtarilaren malda izendatu duten garai honetan ere. Hori dela eta, merkealdietaz solasterakotan kontuan hartu beharreko lehenbiziko aholkua zuhur jokatzeta da, behar baino gehiago ez erostea, alegia.

Publizitate eta saltzaileen trikimailuek inoiz baino eragin haundiagoa izatea eta ohiko aholkuak kontuan ez hartzea dira itsutuak ibiltzearen ondorio batzuk. Horretaz, oroitaraziko dugu kontsumitzaileon eskubideak indarrean daudela merkealdietan ere. Dena den, hona hemen urtarilan hasi eta martxo bitartean iraunen duen merkealdietan erosteko zenbait aholku:

- Behar baino gehiago ez erosteko zerrenda prestatu eta ahal izanez gero denbora dextentearekin erosi. Jakina da saltzaileek eskura duten guziaz erabiltzen dutela gure erosketa bideratzeko eta



Saltzaileek deituta burubelarri murgiltzen gara merkealdietan.

horri aurre egiteko era bakarra zerrenda eginda presarik gabe erostea da. Merkea izanik behar ez duguna garestia gertatzen da.

- Merkealdietako txartela paratu ahal izateko aintzineko hilabeteen salgai egon diren gauzak merkeago saldu behar dira eta dendako produktuen erdia baino gehiago prezio baxuago batean eskeini.

- Garai honetan saltzen denak kalitate berdinekoa

*«Erositakoa aldatzeko aukera ematen badigute idatziz eskatu, legearen arabera akatsa duten gauzak ez dituztelako aldatu beharrik».*

izan behar du. Ez dugu inolako justifikaziorik onartu behar ezta gauza akatsdunak itzultzeko eskubidea ukatzea ere. Gauza akatsdunak 'saldo' izenburupean saldu behar dira eta kalitate eskasagoko gauzak garai honetarako propio egin eta merkealdietan saltzea fraudea da.

- Produktuen etiketak begiratu, bertan agertzen baitira beren ezaugarri nagusiak. Izan ere, antzeko gauzak kalitate guztiz ezberdinekoak izaten ahal dira.

- Nahi duguna erakuslehoian bakarrik badago nahitaez eman beharko digute. Urtean barna txartelak onartzen dituzten tokietan merkealdietan ere hartu behar izaten dituzte.

- Erositakoaren tiketa edo fakturak eskatu, erreklamatzeko beharrezkoak baitira.

### DISKAK



«Ama 41»

Gutariko Bat

Forked Tongues Records

Orain arte Portobello Bones frantziarrekin single bat erdibana grabatzea eta Amanita disketxearen eskutik "Blase" izeneko bilduman abesti pare sartzeta lortu bazuten beratarrek, pausu bat gehiago eman dute 3 abestiko single honekin. Erran behar da grabaketa guztia Lizuniagako aduanan burutu zutela joan den urteko Sanferminetan eta Amanita-

koen laguntza izan zuten estudioan, baina banaketaz beraiak arduratuko direla, ohi bezala. Berriz ere nahiago izan dute 7 hazbeteko biniloa ateratzea, gaur egun eskasten ari den formatoa izanik ere, beraientzat balio berezikoak baita. Gehienbat Gipuzkoa aldean aurkeztu dute lan berria, Nafarroan aukera gutti ematen diete eta.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## IKASTAROAK

### ITUREN

#### ► Alfabetatzea

Ibintza kultur taldeak eta AEKek elkarrekin antolatzen duten helduak euskaraz alfabetatzeko ikastaroan apuntatu ahal izanen da Herriko Ostatuan.

### BAZTAN

#### ► Mozorro tailerra

Iñauteriak arte larunbatero arratsaldeko 5etan elkartuko dira Baztandarren Biltzarra elkarteak, Gazte Asanbladak antolatu duen mozorroak egiteko tailerrean. Apuntatzeko: 580783. Mikel/Joseba.

## MENDI IRTERAK

### ELIZONDO

#### ► Urtarrilaren 18an

Azkuara joanen dira Baztango Mendigoizaleak.

#### ► Urtarrilaren 25ean,

berriz, Astigarragan 9 orduko ibilaldia egingen dute eta gero berendu-afaria Sagargotegi batean. Apuntatzeko Mendi ostatuan: 580313.

## GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

#### ► Urtarrilaren 12tik 18ra

Arantza, Narbarte, Lezaun, Urdazubi, Leitza eta Goizuetan.

#### ► Urtarrilaren 19tik 25era

Igantzi, Doneztebe, Iturralde eta Goizuetan.

#### ► Urtarrilaren 26tik otsailaren 1era

Lesaka, Sunbilla, Lezaun eta Goizuetan.

## ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-1parraldetik 00-34-48

# 631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

## ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Emateko
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

## BERA

Pisua salgai  
Agerra auzoan.  
Berritua eta  
mobleztatua.

→ ☎ 631178

Deitu  
arratsaldeko  
3etatik aitzinera.

## BERA

### Etxea salgai

Kaxerna auzoko 8. zenbakia,  
3.000 m<sup>2</sup>ko lur-eremuarekin.  
400 m<sup>2</sup> erabilgarriak.  
2 egongela, 7 logela, 4 bainugela,  
sukaldea, jangela, despentsa, garajea  
eta terraza. ☎ 631137/630041

BERA. Pisua salgai Age-  
rren. 3 sukalde, egongela,  
2 komun eta ganbara igogailuarekin. Merkea. ☎  
631305.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALGAI

BERA. Harategia salgai. ☎  
631284 (9etatik 1etara).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

LESAKA. Garaje plaza  
errentan emanen nuke. ☎  
637050.

LESAKA. Garaje bat erren-  
tan eman nahi da, Albistur  
39an. ☎ 637820.

Garaje subterraneoaren  
errentan emanen nuke Albistur  
karrikan. ☎ 637948.

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 SALGAI

BERA. Lur-eremua salgai,  
28.000 m<sup>2</sup>koa. ☎ 630040.

## ZERBITZUAK

### 208 BERTZELAKOAK

## ARANTZA ZYRGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako  
zurgin lanak

Osiña autoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

## ttipi-ttapa Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu  
batean egiten dizugu;  
zure gustora diseinatu,  
inprenta desberdinekin  
preziorik hoberena  
negoziatu eta listo!  
Deitu lasai, eskatu  
aurrekontua eta ikusiko  
duzu!

☎ 631188

## LANA

### 301 ESKARIAK

Haurrak zaindu edo etxe-  
ko lanak egiten nituzke. ☎  
630320 (Gloria).

Klase partikularrak ema-  
nen nizkieke 16 urte arteko-  
ei. ☎ 450378 Doneztebe.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

Zerbitzaria behar dugu os-  
tatu lan egiteko. ☎  
627517/637807 (eguerdi-  
ko 12tatik 3etara).

Baserrian aritzeko langile  
bat behar dugu. ☎ 943-  
330595.

Asteburuan lan egiteko  
zerbitzari extrak behar ditu-  
gu. Esperientzia izatea na-  
hitaezkoa da. ☎ 450003.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

Citroen BX 1.6 Athena NA-  
V salgai. ☎ 610780.

Citroen C15 Diesela sal-  
gai, NA-W. ☎ 510558  
(Gauko 8,30etatik 10eta-  
ra deitu).

Seat 127 Fura salgai, ITV  
pasatua. ☎ 627530.

Alfa Romeo 33 salgai, 1700  
motorrarekin. NA-V matri-  
kuladuna, 32.000 km. ☎  
610638 (8etatik aurrera).

Rieju 80 motoa salgai, ego-

era onean. 60.000 pezeta.  
☎ 635136 (gauetan).

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

AUDI VW SAMPI  
ARAGON

Bigarren eskuko kotxeak:  
4 Seat Panda  
Citroen AX  
Cadett Van, Golf

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

NISSAN BERABI tailerrak  
☎ 631445 • BERA

Bigarren eskuko kotxeak:

Nissan Patrol 6R luzea, NA-AL  
Nissan Almera D.A.A. NA-AP

Kotxe berrietan ofertak

## MENDAUER MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Renault Express Diesela, C-15  
Diesela, Lada-Niva merkea,  
Vitara 5 ateko eta haize  
egokituarekin.

## ANIMALIAK

### 601 SALEROSKETAK

3 urteko zaldi bat salgai.  
Mendian ongi ibiltzen de-  
na eta berak bakarrik es-  
taltzen ongi dakiena. ☎  
510356.

Aharia mutur horia salgai.  
☎ 630244 (eguerditan).

Zerrama gizendua salgai,  
hiltzeko. ☎ 634093.

Miga suizoa, arraza one-

koa, salgai. Bi urte bete ga-  
beak eta zazpi hilabete er-  
nari. ☎ 634065.

## DENETARIK

### 701 GALDU/AURKITUAK

Eratsungo etxe batean  
ahuntz grixak, 7-8 urtekoa  
aurkitu dugu. Ezkerreko be-  
larria erditik moztua. ☎  
615006 edo 615126.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

Mendiko bizikleta salgai,  
arroparekin batera, gutxi  
erabilia. ☎ 451738.

Lasterketako bizikleta sal-  
gai, bere arroparekin. ☎  
126633.

Bi teklado salgai, 4 okta-  
bakoa bata eta 5ekoa bes-  
tea. ☎ 610763.

"Documentos" ETArri bu-  
ruzko 18 liburuko bilduma  
salgai. ☎ 610763.

"Los Hollister" eta "Los  
Cinco" liburuak erosiko ni-  
tuzke. ☎ 615124.

Serigrafiarako tresneria  
salgai, prezio onean, be-  
rria. Erosketarekin mate-  
rial oparitzen dugu. ☎ 943-  
619000 (Mikel).

Haritz-amerikano plantak  
salgai. ☎ 450771 (Paulino).

Vaporetta salgai. ☎  
634093.

Opel Kadett 1.6 autoaren



pienez saltzen dira (1988 urtekoa). Zilindro bateko motore diesel. ☎ 599038.

**Hiaritz amerikano** plantak salgai. ☎ 450888 (eguerdi eta arratsetan).

**Esne-tankea**, 150 litrokoa, 40.000 ptan salgai. Egoerra onean. ☎ 510401.

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**Airizkongo M<sup>a</sup> Jesus Elizetxeri** zorionak urtarriaren 28an urteak beteko dituzelako. Pasa egun zoriontsua Martin senarra eta Mari Jose eta Antonia alabekin. Eta kontu izan txanpainarekin, M.P.A. ren partez.

**M<sup>a</sup> Luisa Arriada** elizondarrak urtarriaren 21ean beteko ditu urteak, zorionak eta pasa egun zoriontsua Luis senarra eta Ekiñe eta Garikoitz seme-alabekin, M.P.A. ren partez. Iaz pastelak jatera gonbidatzen gaituzun!

**Aurtizko Miriam** eta Arkaitzeri zorionak zuen lagunaren partez, abenduaren 11(6an 15 urte bete dituzte) laako. Ia txanpain frexko-frexko batera gonbidatzen gaituzun.

**Andoaingo Joxe** manuel eta **Goizuetako Edume** zoriondu nahi nituzke urtarriaren 12an eta 24an urteak egiten dituztelako. Muxu handi bat. Ondo pasa aipirilaren 4an.

**Sebastian Antxordoki** igantziarrak 17 urte beteko ditu urtarriaren 16an. Zorionak lagunaren partez.

**Lesakako Itsaso Urdarri**: ez dut z bezalako lagunirik inoiz izan. Muxu bat. Mireen.

**Zoriontasuna**: zuregatik ezagutu dut zoriontasuna. Aupa zoriontasuna!

**Aitortzori**: Irrikitan gaude otsaila heldu eta zu gure

## URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta seloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



**Andoni Martinez Guerra** beratarrak 8 urte bete ditu urtarriaren 3an. Zorionak Joseba, Inigo eta bere familiaren partez.



**Arantxa Sainsiñena Inda** amaiurtarrak 12 urte bete ditu urtarriaren 9an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



**Ander Olaizola Etxegarai** lesakarrak 6 urte bete ditu urtarriaren 9an. Zorionak eta muxu handi bat Ion eta gurasoen partez.



**Lidia Indakoetxea** aranzarrak 4 urte bete ditu urtarriaren 4an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



**Maider Fagoaga Eugi** beratarrak urteak beteko du hilbeltzaren 15ean. Zorionak eta aunitz urtez eta amaren partez.



**Ainhoa Zabaleta** goizuetarrak urtarriaren 9an bete ditu 2 urte. Zorionak aitaxo eta amaxoren partez.



**Maixus Zabaleta** leizarrak urtarriaren 26an beteko ditu urteak. Zorionak! Ospatuko dugu. Leizta eta Goizuetako lagunak.



**Urrotzko Mikelek** urtarriaren 2an bete ditu urteak. Zorionak! Leiztako lagunak.



**Amaia M.** leizarrak urtarriaren 12an bete ditu urteak. Zorionak! AUPA FUTBOLISTA! Zure koadrila.



**Naiara Lizasoain Zabaleta** 8 urte bete ditu urteberri egunean. Zorionak guraso, Xiker, Joseba, Ainhoa eta Itxasoren partez.



**Julen Velez Ara** beratarrak urtarriaren 5ean urteak bete du. Zorionak guraso eta Ainararen partez.



**Beñat eta Ander Arregi Arretxea** doneztebarrek urtarriaren 17an beteko dituzte 3 urte. Zorionak familiaren partez.



**Maider eta Izaskun Arozenari** zorionak, urtarriaren 8an eta otsailaren 1ean betetzen dituztelako urteak. Familiaren partez.



**Gorka Elizetxe Elizagoienek** 3 urte beteko ditu urtarriaren 28an. Zorionak zure lagunaren partez. Muxu handi bat.



**Irati Arbelaitz Eguzkiagirre** igantziarrak 2 urte beteko ditu urtarriaren 18an. Zorionak zure familiaren partez.

bistatik desagertzea. Nola egongo ote zara ile rapatuarekin? Bromada, aguantazak! Pena hartuko dugu horrelako lagun bikain bat maiz ez ikustea. Kuadrillaren partez eta, batez ere, Labri eta Tazen partez.

**Miren, Joseba eta Luluri**: Espero dugu botik txanpain bana ateratzea larunbat batean, bestela erregeak gaizki portatu zaretela ikusita ez dizue ezer Utziko. Azpilkuetako lagunak.

**Berako Jose Javier Alzuguren** «era-usté»ri: bihotz bihotzez zorionak, urtarriaren 14an «taintos» urteak betetzeagatik. Egun berezi hori ahalik eta hoberean pasa dezazu desiatzen dizut. Animo, konkorra oraindik ez zaizu atera eta! Mutikote galanta egina zaudete. Zure ezti-potoaren partez.

**Legasako Kazkok** hilbeltzaren 1ean urteak bete di-

tu. Zorionak! L.I.J.I.J.

**Urdazubiko Amaia** Perurenari: zorionak urtarriaren 8an partez, Berako lehengusuen partez.

**Erratzuko Roxa** Iturbuuri zorionak zure urtebetetze egunean. Zure joan den urteko eskolako lagunaren partez.

**Narbarteko Aitor** Karrikabururi: zorionak zure urte-

betetze egunean (urtarriak 5). Kontuz txanpainarekin! Zure klaseko lagunaren partez.

**Elizondoko Joxe** Angel Maiari zorionak zure urtebetetze egunean. Barkatu berandu paratzeagatik. Muxu bat Urdazubiko lagunaren partez.

**Urdazubiko Amaia** Perurenari zorionak zure urtebetetze egunean (urtarri-

lak 8). Txanpaina noizko? Zure klaseko lagunaren partez.

**Mugairiko Idoia** Zelaietak urtarriaren 10ean urteak beteko ditu. Zorionak Leizta eta Mugairiko lagunaren partez.

**Legasako Unai** urtarriaren 18an beteko ditu urteak. Zorionak. I.J.J.

**ttipi-ttapa**

**Ameriketara bidaltzea erdi prezioan gure bitartez**

*Frankeo Kontzertatuari esker, errebista berbera guk bidali ezker, zuk bidalita baino erdi prezioan kostako zaizu.*

*Iparraldetik deitzeko 00-34-48-631188*  
*Hegoaldetik deitzeko 948-*

# URTEBETETZEAK

**Sail hau debaldekoa da.**  
Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

**ttipi-ttapa**  
Urtebetetzeak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta sellosa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



**Mª Jesus,**  
zorionak eta aunitz urtez.



**Julene Ortega Altzuguren**  
beratarrak 2 urte eginen ditu urtarriaren 17an. Zorionak gurasoen, bi amaxien eta aitaxiren partez.



**Miriam Altzuri,** abenduaren 15ean 15 urte bete dituelako. Zorionak bere lagun partez. Zorionak Heavy Tron!!



**Arkaitz Mindegia** 15 urte bete ditu abenduaren 16an. Zorionak bere lagun partez. Zorionak Heavy Tron!!



**Xabier Elizalde** iturendarrak urtarriaren 3an bete ditu 13 urte. Zorionak Arantzako atauxi eta gurasoen partetik.



**Itziar Arozeta Larralde** lesakarrak 23 urte bete ditu abenduaren 27an. Zorionak bromista eta egun ona pasa...?



**Josu Telletxea Garmendia** donamariarrak 5 urte bete ditu. Zorionak bere guraso eta familiaren partez.



**Ander Bertiz** doneztebarrak 8 urte bete ditu abenduaren 29an. Zorionak bere guraso eta senideen partez.



**Maria Luisa Arriada** elizondarrak 27 urte beteko ditu urtarriaren 27an. Zorionak eta pasa egun ona senarra eta seme-alabekin.



**Iñigo Mítxelena Arriada** lesakarrak 11 urte bete ditu hilaren 14an. Zorionak. Josune, Laura, Uxo eta gurasoen partez.



**Maialen Mikelarena** beratarrak 4 urte egin ditu abenduaren 31n. Zorionak ama, ata eta familia guziaren partez.



**Unai Udaeta Zubietak** urtarriaren 5ean 5 urte bete du. Ander, Arantza eta Iratzen partetik aunitz urtez, pottoko!



**Mª Jesus Sagardia** sunbildarrak 60 urte bete ditu abenduaren 26an. Zorionak Sunbilloko familia guziaren partez.



**Gaizka Oteiza** oronoztarrak 2 urte bete ditu abenduaren 18an. Zorionak familiaren partez eta segi orain arte bezain "bitxo".



**Beñardo Barredo Telletxea** beratarrak 23 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak guraso eta arrebairen partetik.



**Mikel Ibarra Ibarra** sunbildarrak 18 urte bete ditu urtarriaren 6an. Zorionak Igantziko lagun eta bereziki Izaskun Tren partez.



**Izaskun Sein Garzia** igantzarrak 17 urte bete ditu urtarriaren 11n. Zorionak lagun partez.



**Yolanda Manterola Zelaia** igantzarrak 17 urte beteko ditu urtarriaren 27an. Zorionak zure lagun partez.



**Aitor Begino Irigoien** igantzarrak 6 urte bete ditu urtarriaren 14an. Zorionak Mikel eta gurasoen partez.



**Belen Guerra Irigoien** igantzarrak 30 urte bete ditu abenduaren 29an. Zorionak seme eta familiaren partez. Aupa amatxi!



**Eider Ordoki Agesta** irundarrak 5 urte bete ditu urtarriaren 1ean. Zorionak eta muxu handi bat Arantzako familiaren partez.



**Amaia Altzuguren Mitxelena** beratarrak 4 urte beteko ditu urtarriaren 19an. Zorionak guraso eta Ainhoa ahizparen partez.



**Arantxa Murgika Tomaseña** urdazubiarrak 20 urte bete ditu abenduaren 23an. Zorionak eta muxu bat koadrilla-koen partez.



**Izaskun Miura Ariztia** urdazubiarrak 20 urte bete ditu abenduaren 20an. Zorionak eta muxu bat koadrilla-koen partez.



**Mattin Irigoien Matxiarena** beratarrak 2 urte bete ditu urtarriaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.




**Estibalitz Mañeru Jimenez** 4 urte bete ditu urtarriak 10ean. Zorionak Dabid, Iban, guraso, osaba eta aitona-amonen partez.



**Eneritz Loiarde Zubietak** 8 urte bete ditu urtarriaren 2an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



**Imanol de Rueda Goñi** lesakarrak urtea bete du urtarriaren 4an. Zorionak eta muxu handi bat gurasoen partez.



**Josetxo Baleztena** saldiastarrak urteak bete ditu abenduaren 18an. Zorionak eta muxu handi bat anai eta iloben partez.



**Kontxi Mutuberria Bergara** lesakarrak 23 urte bete ditu urtarriaren 2an. Zorionak familiaren partez. Muxu bat. Belen.



California (EEBB) bizi diren **Josephina** eta **Christina Irigoien** ama-alabek abenduaren 25 eta urtarriaren 17an beteko dituzte urteak. Erratzuko beren familia guziaren aldeak, agur bero bat eta aunitz urtez.



**Joseba Pika-bea Baleztena** lesakarrak 13 urte bete ditu urtarriaren 3an. Zorionak Doneztebeko familia eta Imanolen partez.



**Santi Torres** beratarrak urtarriaren 2an urteak bete zituen. Zorionak zure famili osoaren partez.



**Monika Garcia Maia** lesakarrak 14 urte bete ditu urtarriaren 14an. Zorionak eta muxu goxo bat zuk dakizun baten partez.



**Jose Ugalde Telletxea** beratarrak 25 urte bete zituen. Zorionak zure familiaren partez.



**Tomas Maia Tapia** lesakarrak 43 urte beteko ditu urtarriaren 20an. Zorionak sherpa onenari.



**Iker Altzugarai Zubiri** lesakarrak 5 urte beteko ditu urtarriaren 15ean. Zorionak eta Aitorren partez.



**Aitor Iturralde** azpilkuetarrek 18 urte bete ditu. Zorionak azpilkuetarren partez.



**Miren Ariztia** azpilkuetarrek abenduaren 28an urteak bete ditu. Aunitz urtez azpilkuetarren partez.



**Joseba Mari-ekurren** 17 urte bete ditu urtarriaren 2an. Zorionak azpilkuetarren partez.



**Mª Lurdes Mendiburuk** abenduaren 31n urteak bete ditu. Zorionak azpilkuetarren partez.



**Andrea Karrikaburu Ripa** iruritarrek 5 urte bete ditu urtarriaren 8an. Zorionak zure familiaren partez.



**Ione Fagoaga Etxarte** lesakarrak 14 urte bete ditu urtarriaren 7an. Zorionak familiaren partez.



**Amaia Sanchez Torres** beratarrak abenduaren 4an 5 urte bete ditu. Zorionak familiaren partez.



**Edurne Zabalza** leitzarrak urtarriaren 13an 4 urte bete ditu. Zorionak gurasoen eta baxez ere Maxuxen partez. Muxu handi bat.



**Mª Jesus Baleztena** saldiastarrak urtarriaren 6an bete ditu urteak. Zorionak seme-alaba, senar, eta Doneztebeko senideen partez.



**Izaskun Sein** igantzarrari, zorionak!! Orain arte bezala jarraitu. Besarkada bat. Etxalarko lagun bat.



**Joxe Mari Galindo** leitzarrak 27 urte bete ditu abenduaren 29an. Zorionak eta muxu bat emaztearen partez.



**Karlos Aleman Oieregi** iruritarrek abenduaren 31n 25 urte betetzen ditu. Zorionak Pitxurri partez.

# MUEBLES A METS

mobleak orokorrean

Bidasoa 45-60  
Tfnoa: 948-630537  
**BERA**



## NEURRIRA EGINDAKO MOBLEAK



KIA Sportage:  
Urteko 4X4a  
Alemanian.  
Etorri eta  
proba  
ezazu

25 urte  
zuen  
zerbitzura




KIA MOTORS

SPORTAGE

Zerbitzu Ofiziala

**SAMPI ARAGON**

Leitzako errepidea  
© 450354 / 450759  
**DONEZTEBE**



Doneztebeko  
M<sup>a</sup> CRUZ  
entzerian,  
rrate baterako,  
10eko  
DESKONTUA  
zanen  
duzu 5.000 ptatik  
oitiko erosketa  
gin ezker...

# TTIPI TXARTELArekin

dirua eta  
gauza  
gehiago ere  
irabazten da



## DESKONTUAK

### AISIALDI AKTIBIDADEAK

BKZ ..... Bertiz ..... %10

### AUTO TALLERRAK

MENDAUR MOTOR ..... Doneztebe ..... %10 Kubiortetan  
SANPI ARAGON ..... Doneztebe ..... %10 Kubiortetan  
PEDRO GARMENDIA ..... Elizondo ..... %20 Olio aldatzeak  
DATUGELAY ..... Elizondo ..... %15 Bateria + amartiguadoreak  
SANSINENA ..... Elizondo ..... %15 Olio aldatzeak %20 Frenoak  
LAGOSTA ..... Irurita ..... %100 Pre-ITV  
ZALAIN MOTOR ..... Bera ..... %5 Errekanbiontan

### AUTO-ESKOLAK

SEMPER ..... Bera ..... %10 Matrikulan

### ARGAZKI DENDAK

GOIKO ..... Bera ..... %10 Errebelatze eta arg. materialak  
AYLA ..... Bera ..... %10 makinetan izan ezik  
MENA ..... Doneztebe/Elizondo ..... %10  
ZALDUA ..... Doneztebe/Elizondo ..... %10

### ARROPA DENDAK

EDURNE ..... Bera ..... %10 (5.000 Patatik. aurrera)  
SAIOA ..... Doneztebe ..... %10  
J.J. PICABEA ..... Doneztebe ..... %10 Galtza marka batzuetan ez  
TXIRRISTA ..... Doneztebe ..... %10  
KAMAMILA ..... Doneztebe ..... %10  
PICABEA BOUTIQUE ..... Doneztebe ..... %10  
IPINGI ..... Elizondo ..... %10  
COGOS ..... Elizondo ..... %10  
KATTALINGORRI ..... Elizondo ..... %10  
FANTXIKE ..... Elizondo ..... %10 (5.000 Patatik. aurrera)

### EDARI BANATZAILEAK

MANUEL TABERNA ..... Bera ..... %3

### ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS ..... Lesaka ..... %5 Elektrogailuetan %15 Antenetan  
ALTZURI ..... Lesaka ..... %5 Elektrogailuetan %20 Mat. elek.  
RADIO BIDASOA ..... Bera ..... %10 Deskontu baleak

### ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA ..... Doneztebe ..... %5 Kosmetikan %10 Oparietan  
BEATRIZ ..... Elizondo ..... %10 (5.000 Patatik. aurrera)  
MARIAN ..... Lesaka ..... %10

### KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK ..... Elizondo ..... %8  
ZELA KIROLAK ..... Bera ..... %10  
AGARA KIROLAK ..... Bera ..... %10 Kirol Artikuluetan  
M<sup>a</sup> LUZ SPORT ..... Bera ..... %10 Arropetan. Kirol artikuluak ez.

### LENTZERIAK

M<sup>a</sup> CRUZ ..... Doneztebe ..... %10 (5.000 Ptatik. aurrera)  
MAITE ..... Elizondo ..... %10 (5.000 Ptatik. aurrera)  
DENE ..... Lesaka ..... %5 Kortseterian %10 Lentzerian

### LIBURUDENDAK

NAFARPRESS ..... Elizondo ..... %10 Liburu eta ikas-materialak  
LEGARRA ..... Lesaka ..... %10 Lib. + ikas-matec. (1.000 Pta.)

### MOBLEDENDAK

AMAIUR ALTZARIAK ..... Doneztebe ..... %6  
LEIZA ..... Elizondo ..... %10 Sukalde mobletan

### OPTIKAK

OSTARGI ..... Bera ..... %10

### ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS ..... Bera ..... %10  
GORI ..... Elizondo ..... %10 (2.000 Ptatik. aurrera)  
B. ALMANDOZ ..... Elizondo ..... %10 (3.000 Ptatik. aurrera)  
NEREA ..... Doneztebe ..... %10  
OSTIZ ..... Doneztebe ..... %10

### ZURGINAK

ZIMELDI ..... Etxalar ..... %5 Sukalde eta armario enpot.



eta  
Doneztebeko  
XIRRISTA  
arropa dendan,  
%10eko  
DESKONTUA  
zanen duzu  
artikulo  
uzietan

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK**  
saltzen dituen txartelak  
erosiz, gauza aunitz lor  
ditzakezu: ttipi-ttapa  
lagundu, eskualdeko  
dendak bizkortu eta  
erosketak merkeago egin.

Informazio gehiago:

**631188**